

Nafarroako ahozko mintzoaren aniztasuna

Orreaga IBARRA MURILLO

Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Publikoa Unibertsitatea
orreaga@unavarra.es

Laburpena: Nafarroako hizkerak askotarikoak eta aldakorak dira, ondoko hizkuntzak baino askoz handiagoa da aldakuntza hau. Ezaugarri hauek agerian gelditzen dira XX. mendearen bukaeran grabaturiko etnotestu hauen bidez. Aldi berean, testuok eguneroko bizitzaren testigantzak dira, eta interesa dute orain estandarizazioa orokortzen ari denean. Testuen ondoren, azterketa dialektologikoa ekartzen dugu; bertan, hizkera hauen ezaugarri dialektalak agertzen dira. Azterketa honetan, azpimarratutako ezaugarriak eta hurbileko hizkerenak alderatzen dira, azterketa dialektologikoetan beharrezkoa denez. Etnotestu bakoitzaren ondoren, azterketa fonologiko, morfologiko, sintaktiko eta lexikoa dator.

Gako hitzak: euskal hizkerak; azterketa dialektologikoa; euskalkia; Nafarroa.

Resumen: El euskera muestra una gran diversidad dialectal en Navarra; esta variación es bastante mayor que las lenguas colindantes. El objetivo de este artículo es el análisis de diversos textos que muestra esta diversidad de rasgos lingüísticos; en un momento en el que la estandarización de la lengua es cada vez más patente. La recopilación de datos se hace mediante conversación semidirigida por conocidos o familiares de los hablantes, de manera que el habla es espontánea. Los textos escogidos abarcan todas las variantes dialectales de Navarra, occidentales, orientales y centrales. Todos los textos están precedidos de un encabezamiento que resume el tema tratado; a continuación añadimos el análisis dialectológico, donde afloran los rasgos dialectales propios de las distintas hablas desde una perspectiva contrastativa. Cada etnotexto se acompaña de un análisis fonológico, morfológico, sintáctico y lexical.

Palabras clave: dialectos vascos; análisis dialectal; euskera, Navarra.

Abstract: Basque dialectal shows great diversity in Navarra; considerably higher than the surrounding languages. The analysis of various texts recorded at the end of the twentieth century shows this diversity of features. Some of these dialects are close to disappear. In this article we transcribe several texts, going from East to West, then we add a heading that summarizes the subject. The texts are usually transcribed following the conventions of the usual spelling; but they are given few concessions to the dialectal pronunciation. Next we add the dialectological analysis where outcrops own dialectal features of the different talks. Each text is accompanied by a phonological, morphological and syntactic analysis.

Keywords: basque dialects; dialectal analysis; dialect, Navarra.

0. Sarrera

Ezaguna da Nafarroan mintzo diren hizkerak askotarikoak direla, bariazioa berezkoa baitzaio hizkuntzari. Horregatik, XX. mendearen bukaerako grabaketa batzuetatik abiatuak, etnotestu batzuk hartu ditugu eta horiek iruzkindu ditugu, izenburua jarri ondoren. Elkarrizketak giro lasaian egin ziren, seme-alabek eta ezagunek egin zizkieten beren etxeetan, ohiko gaien inguruan: bizimodua, euskararen egoera, eguneroko gertakari arruntak, eta beren bizipenak. Ondoren, etnotestu hauen azterketa sinkronikoa proposatzen dugu eta testu hauen ezaugarri fonologiko, morfologiko eta sintaktikoak aztertzen ditugu artikulu honetan.

Bistan denez, Nafarroako euskararen ia aldaera guztiak aztertzen dira. Testu bakoitzean agertzen diren ezaugarriak alderatzen dira inguruko hizkeren ezaugarriekin; horrela, modu laburrean bada ere, ikuspegi kontrastatiboa bilatzen da, dialektologian ohikoa denez. Bestaldetik, testu hauek erkidego baten diskurtsoa osatzen dute. Erkidego hau bizitza tradizionalen murgildurik dago eta baserriaren inguruko bizitzan. Horien bitartez bizitzaren pasarte garrantzitsuak kontatzen dira: eskola, umeen egoera, mendiko lanak, iraztorraren bilketa, kisu-labeak, euskararen errepresioa, hiletak eta abar.

Hauek dira hautatutako herriak: Beramendi, Beintza-Labaien, Lekarotz, Lekunberri, Lesaka, Unanu, Zubieta, Zilbeti, Zugarramurdi. Nafarroako aldaera gehienak biltzen dira hemen, ekialdetik mendebalera joanez, kolore desberdinak dituzten hizkerak dira hauek. Zilbetitik hasi eta Lesakan bukatuz; Laburbilduz, Erroibar, Baztan, Larraun, Malerreka, Bortziri, Sakana eta Basaburua ibarretako solasak agertzen dira hemen. Zuazoren sailkapenaren arabera (2010b: 40) Nafarreraren aldaera guztiak agertzen dira testu hauetan eta baita tarteko hizkerak ere. Hona hemen sailkapena: nafarrera sortaldekoa: Zilbeti. Tarteko hizkerak: Beramendi, Lekunberri. Ipar-sartaldekoa: Beintza-Labaien, Lekarotz, Lesaka, Zubieta. Hego-sartaldekoa: Unanu. Nafar lapurtera: Zugarramurdi-

Jakina denez, dialektoen egoera sozio-historikoa aldatu da; gizartea ere erabat aldatu delako. Hori dela eta, XX. mendearen bigarren aldirian hizkuntza desberdintasun geografikoak txikitu dira, eta horren ondorioz dialektoek berdintzera jo dute. Joera honen testigantzak baditugu Euskal Herriko edozein hizkeratan; esaterako, erabat testigatua dago Donostian (Camino, 2000); horren ondorioz, horko euskara koloregabetzen ari da. Bertzaldetik, irizpide sozialak hartu dira kontuan: adinean 50 urtetik gorako hiztunak aukeratu dira eta, ikasketa-maila ez altukoak, euskaraz alfabetizatu gabeak dira elkarrizketatuak, alegia, euskaldun zaharrak. Testu hauetan grabaturikoa lagunarteko elkarrizketaren adibideak

dira. Honenbertzez, artikulua honen interesa, hein batean, honetan datza: ahozko hizkera hauen ezaugarriak eta eremu txikian dagoen aldakortasun dialektala agertaraztean.

Grabaketa bakoitzean nabarmendutako ezaugarri linguistikoak ugariak dira, eta hizkuntzaren atal guztietan agertzen dira: fonologian, morfologian, sintaxian eta lexikoan. Ezaugarri hauek interesgarriak dira bertako hizkeraren bereizgarriak direlako, alegia, ia esklusiboak direlako, bateratzaileak direlako edo sistematikoki betetzen direlako. Testu bakoitzean gehiago edo gutxiago hogeiz ezaugarri inguru azpimarratzen dira; hizkeran adierazgarrienak, eta testuan agertzen direnak. Bi alde hauek uztartuz, mintzoaren azterketa kontrastiboa egingen dugu.

Kontuan izan behar dugu Nafarroako herri hauen gaineko hizkerari buruz hainbat ikerketa eginak direla. Hauek dira lan aipagarrienak: Basaburuan, Imotzen eta Ipar mendebalean Apalauzak (2008a, 2008b) eta Ibarrek egin dituzte ikerketa zabalak (1995), Baztanen ere baditugu lan sakonak: (Salaburu & Lakar: 2006), Salaburu (1986). Sakanako hizkerari buruz Zuazok (2010) eta Erdoziak (2004) ikertu dute berriki. Bortzirietan Iñigok (2007) egin ditu lan batzuk, eta baita Zelaietak (2008) ere. Erroibarren Ibarren (2000 eta 2006) eta Artolaren lan ezagunak ditugu (2016). Lan orokorrak ere badira; Hego nafarrerari buruz Caminok ikertu zuen (2003), eta Leitzako hizkera Olanok eta Zubirik (1998) deskribatu zuten. Urdazubiko euskararen gainean badugu bertze monografia bat (Montoya, 2004). Bukatzeko, Malerrekan ere badira ikerketa sakonak (Zelaieta: 2008) eta solasen bilketak (Lakar & Apalauza 2005). Laburbilduz, gehiago edo gutiago herri hauetako hizkeren ezaugarrien deskribapena badugu, alegia, badira hainbat doktoretza tesi, ikerlan eta artikulua idatzirik. Baina, hizkera hauen bizi irauteari buruz dialektologiak eta hizkuntzalaritzak badu zer esaterik, izan ere, lehen erraten genuen bezala, dialektoek berdintzera jo dute nabarmenki.

Irakurketa errazteko helburuz transkribaketa «erdi fonetiko» izango da. Hala ere, homogeneotasunari begira honako erabaki hauek hartu ditugu: <h> ez da erabiliko, hasperenketarik ez badago. Era berean, azentu diakritikorik ez jartzea erabaki dugu. <y> grafemak soinu desberdinak izkutatzen baditu ere, igurzkaritasun mailaren arabera bokal epentetikoa dagoenean: *eriyak*, *irriyek* eta ohiko *-ie*, *-io*, *-ia* gisako taldeetan: *geyenetan*, *zitzeyo*. Soinu igurzkariarekin hasten diren guztietan ere, *y*- jarriko dugu: *yoan*, *yarri*. <j> grafemak, berriz, belare frikari ahoskabea adierazten du: *garaje*. *-In* taldeetan <ñ> jarriko da, soinu sabaikaria argi dagoenean: *giñun*, *ziñen*, *giñun*. Gauza bera gertatzen da <tt>-rekin: *itten*, *otturre* eta <ll>-rekin: *pernillek*.

Azkenik, letra etzana jarriko dugu gaztelania tartekatzen denean: adib. *de usté*. Parentesi karratuak [] ere erabili ditugu inoiz, hitzen edo esaldi motzen bat testuen barruan tartekatu ditugunengan, hauetan jasotzen dena argitzeko asmoz.

Zalantza dugunean, berriz, edo zerbait ongi entzuten ez denean parentesia jarriko dugu.

Beste arazo bat hitzen loturak dira, kate mintzatuan gertatzen diren hitzen arteko loturak. Argitasunaren mesedetan, entzun bezala transkribatu ditugu; alegia, batzuetan askatu ezinezko loturak direnean, horrela transkribatu ditugu: *alakotien, puxketez, eztuena, eztire, oñiauzu, beau* gure belarriak kolpe edo unitate batez erranak entzun baditu. Beste batzuetan, bereiz agertuko dira: *txuri bet, itten nintzen...* Bertzaldetik, hitz barnean soinu bat desagertzen denean, ez dugu markatu: *eramtten, kar ziaten*. Ondoren, azterketa atalean argitzen da esanahia, etimologia eta gainerakoak. Nolanahi dela ere, transkribatzea aukeratzea da, eta hori izan da gure hautua.

I. Beramendi

58 urteko gizona, herrian lan egin zuen hasieran. Gero Basaburuko gainerako herrietan morroi izan zen, Itsason eta Udaben artzai eta mendi lanetan ibili zen Aralarren, soldaduskara joan arte. Umeek ez zuten eskubide handirik eta oso baldintza gogorrak izaten zituzten lan egiteko orduan. Euskara da bere hizkuntza naturala eta elkarrizketa etxean egin zitzaion.

Morroji lanetan aritua

–Ta ze itten zenun, denboa artan beatzi urtekin?

Beatzi urtekin, pues aitzen giñen, an ere bai pillotakin, igual, igual, erri guzitan zen kostunbre bera. An aitzen giñen pillotan elizeko eleza atarin da, geo an ere plaza bazen ta plazan geo... Ta geo joan nintzen morroi, berriz beste erri batera Yabena ta eon nintzen beste urte an... An ere igual, berdin. An joaten giñen eurre eske, orbela biltzea beien azpitako ta igandetan beti beie beti beie janazten egunero.

–Ta asko, asko ordaintzen zizuten?

Mantenu truke, mantenu truke ta, galtzerdik eosteagatik, galtzerdik e! Ez ez, zea, ez pantalonak ez deusez ez, galtzerdik!. Ta gero gue amak eskatu zioten amabost duro yateko yateko, ta ez zezaketela pagatu ta ala! etxera!

–Ta ze logelatan itten zenun lo, ta... edo?

Hombre! lo gelan, pues an bazeon, bi oatze zituen, an zen, gelaat aundii. Kuarto bat aundii zen, guk kuartoa esaten giñun, kuarto bat aundii ta an in itten nun lo ta...

–*Zenbat morroi zineten?*

Ni bakarrik an ta beak zuten, zen neska ta mutille, ta mutille zegon soldau, ta ore soldau etorri arteo, eondu nintzen an ta geo. Geo bete zelaik, bes oreo torri zelaik, geo berriz itxea ta geo berriz joan nintzen Itsasoá bes. Mantenu truke berdin ore, ta an aik zuten ardik, ta artzai ta, ardik eaman oianean mendira, bildu ekarri itxera ta... Geo mozten ebai, ardik mozten ebai, moztu da... kalparra moztu ardiri ta, igual beorre ekartzen ta, eurre eosten ta, dena, beti...

Mendietan egindako lanak

Ta geo amalau urte bete nitulaik joan nintzen San Migel mendie de, joan nintzen... Rantxero! Rantxero zen, bazkari prestatzea an, ta an babak erosi ta, bazkan, babak bakarrik jaten zen ordun. Ta ez nitun oso ongi eosten batzutan zeatik, eske, eske, etziten... zen arri koxkorrak bezala aik ta ez nitun eosten. Ta tortzen zelaik gauin itten zuten... uuek irristak! eunero ola ta irrista batzuk, bueno!, ta.

Egun batin esan zeten; biar (zen launbeta ta...) biar sei'zak itxea emendik ta!, bale! Ni biamun goizin, ordun ez nintzen jeiki, ta launek esan zen; -ez dok jeiki bear?, -ni ez, ni itxea!

Ta; bale, bale. Ta geo aik uste zuten ni bazkari... nintzela bazkari prestatzen, ta, egin nuen ni jeiki ta martxa. Joan nintzen an tau ondoan aitzen den Ameskan batzuk aitzen iketzak itteko, eurre mozten ta ni aiekin izketan eondu nintzen ta aiekin gosaldu bear nula. Ta barna sartu giñelai gosaltzea etorri zen bille, ta zauketen txabola atarin zakur bat lotuta. Ta itten zun ozka arrek, bueno! arrapatzen zunai arrek iten zun ozka, ta etorri zen ta joe! nii ikusi zelai aiekin gosaltzen ari naizela, etorri zen nausi area, ta ari naizela bueno; -ze ai aiz emen? Zen erdaldune ta: —«... *déjale, déjale que le hemos invitado almorzar, un poco, dice que se va pa casa*». —«¿A casa? ¡*Simvergüenza!*!» Ta eman zen ostiko bat, beño ni nintzen bea beño listoagoa ta inintzen ata'ntik zarrast! ta nei ostikoa, ostikoa tiratu zen, beño intzion zakurrek arrapatu anketik. Klaro, eskerrak zakurrek arrapatu zion anketik ta ni ordun laisterka, aire!.

Etorri nintzen Beamendiaño, San Migel menditik oinez ta allegatu nintzen arratsaldeko iruetan baruik oaindik.

–*Ta nondik etorri zinen?*

San Migel menditik, an Aralartik an.

–*Baina nondik?*

Oinez.

–*Arruitzetik edo?*

E?

–*Nondik pasa?*

Ez, kamioz kamio bueltan Lekunberritik bueltan... Gurutze ontatik gora Beamendie Udabetik.

–*Ta Urritzara ta gero Beramendira?*

Karo, Udabetik Beamendie. Ta bueno. Geo joan nintzen, geo ya, andik bes bi iru illabetea, geo etxin aitu giñen lanean, belarrak eta, belarrak moztu ta segakin ta. Geo joan giñen, geo joan nintzen berriro, berriz mendie, gue amak etzun deskantsatzen, beti arek nai zun diru ekartzea, ta berriz mendie, ta egon nintzen, Belaten an aitu nintzen beste billabete. Geo andik etorri billabete pasa an. Ta etorri ta bes arbi jorran da aitzen giñen ordun arbibide asko eraitten zen, ta garii ta, eraitten zen den denetatik, ta eraitten zen babak, uloak, patata, maizee, banarrak, denetatik eraitten zen. Geo plantatzen zen, litxuk, tipulek ta, remolaxa ta remolax jorran aitzen giñen.

Elkarrizketatua: J. E. G.

Elkarrizketatzailea: I. E.

1.1. *Fonologia*

–Eskualde honetan hitza *-i* edo *-u*-z bukatzen denean eta ondoren mugatzailea eransten zaionean gertatzen da asimilazioa. Asimilazioa ugaria da Basaburuko herrietan (cf. Apalauza, 2008: 52): alegia, artikulua asimilatzeke joera, *-a* galtzen da *-i*-n eta *u*-n bukaturiko hitzetan: *-ia* > *-ii*: *garii* ‘garia’, *-uak* > *-uk* eta *-uan* > *-un*: *litxuk* ‘litxuak’, *ordun* ‘orduan’, *-ian* > *-in*: *etxin* ‘etxean’, *atarin* ‘atarian’, *gauin* ‘gauean’.

–Bokal harmonia ugaria da, alegia, *i* eta *u* bokalek eraginda *a* > *e* egiteko joera bizirik dago eskualde honetan, eta arauzkoa da artikulua denean: *tipulek* ‘tipulak’, *eta nora* morfemarekin *mendie* ‘mendira’.

–Bokal arteko *-r-*, *-g-*, *-b-*, *-d-* desagertzea oso joera indartsua da eremu honetan, *-r-* anitza ere galtzen da (cf. Ibarra, 1995: 220): *bes* ‘berriz’, *aitzen* ‘aritzen’, *gue* ‘gure’, *eurre* ‘egurra’, *Beamendin* ‘Beramendi’, *baruik* ‘barurik’, *ilabetea* ‘hila-betera’, *aitu* ‘aritu’, *geo* ‘gero’, *launek* ‘lagunak’, *banarrak* ‘banabarrak’, *biamun* ‘biharamun’, *sei* ‘segi’, *soldau* ‘soldado’.

–Asimilaziozko palatalizazio Euskal Herriko erdiguneko eremu murrizteko bereizgarria da (Zuazo, 1998: 201-202). Hala, palatalizazioa indartsua da Nafarroako Imotzen, hitz barnean zein bukaeran; *i*-ren ondokoa ugaria da, *-t* eta *-l* fonemetan: *eraitten* ‘ereiten’, *itten* ‘egiten’, *pillota* ‘pelota’, *bille* ‘bila’, *illabete* ‘hila-bete’.

-*Ez* +*z*- bokal elkarketetan, kontsonante afrikaria egitea da ohikoena: *etzun* ‘ez zuen’.

-Kontsonante belarea <x> erabiltzen da, Basaburuan eta Imotzen ohikoa denez: *arbi jorran* ‘jorran’.

1.2. Izen morfologia

-A organikoa galtzea da eremu honetako ezaugarria, Zuazok (1998) gipuztaren ezaugarritzat hartu du *-a* berezkoaren egonkortasun eza: *remolatx jorran* ‘remolatxa jorran’.

-Nora aditzlagunekin eta *-ra* morfema izenei eranstea *-ea* bukaera sortzen da: *harea* ‘hara’, *illabetea* ‘hilabetera’.

-*Gure* izenlaguna erabiltzen da *ama* izenarekin: *gue amak etzun deskantsatzen* ‘gure amak ez zuen deskantsatzen’.

-3. pertsonaren izenordea, *harek* eta *harrek* dira deklinatu gabe: *arek nahi zun* ‘harek nahi zuen’ eta *arrek iten zun ozka* ‘harek egiten zuen hozka’. Euskal Herriko eremu zabalean erabiltzen dira halako formak.

-Kasu instrumentalean atzizki txistukaria apikaria da Imotzen (-s): *bes, beis* ‘berriz’.

-Izena + izenondoa + *bat* egituraren ordeztasun, izena + *bat* + izenondoa gertatzen da. Hurrenkera hau maiz agertzen da ekialdeko hizkeretan, baina erdialdearagokoetan ere aurkitzen ditugu: *gelaat aundii* ‘gela handi bat’, *kuarto bat aundii* ‘gela handi bat’.

1.3. Aditz morfologia

-Nork nori nor aditz laguntzailean, hark-niri adizkian, bokal arteko *-r-* galtzen da eta monoptongaketa suertatzen da: *eman zen* ‘eman zidan’, *tiratu zen* ‘tiratu zidan’.

-Nork-nori-nor sistema *ikusi* aditzarekin egiten da, ez nork-nor aditz sistemearekin: *nii ikusi zelai* ‘niri ikusi zidalarik’.

-Euskal Herri osoan bezala, *-du* partizipioa nagusitu da *egon* aditzean, partizipio analogikoa *-du* erantsiz sortzen da, ohikoena denez eremu honetan: *eondu nintzen* ‘egon nintzen’.

-*Edun* iraganaldiaren aditzaren aldaera *zun* ‘zuen’ da, forma monoptongatua, erdialdeko hizkeretara hurbiltzen dena.

-*Eduki* aditzaren iraganaldi sintetikoa *-a* erroarekin egiten da, goi nafarreraz bezala: *zauketen* ‘zeukaten’.

1.4. *Sintaxia*

-*Egin* indartzailea ohikoa da erdialdeko hizkeretan, *egin* + aditz laguntzailea: *beño ni nintzen bea beño listoagoa ta inintzen atantik zarrast!* ‘Baina ni nintzan bera baino listoagoa eta egin nintzen atera handik, zarrast!’; *intzion zakurrek arrapatu anketik* ‘egin zion zakurrak harrapatu hankatik’; *egin nuen ni jeiki ta martxa* ‘egin nuen ni jaiki ta martxa’, *ta inintzen ata’ntik* ‘eta egin nintzen atera handik’.

-Denborazko esaldietan, *-larik* morfema nagusitzen da goi nafarreraren eremu handian gertatzen den bezala: *sartu giñelai gosaltzea etorri zen bille* ‘sartu ginelarik gosaltzera etorri zen bila’.

-Kausazko esaldietan *zeatik* galdetzailea nagusitzen da perpaus hasieran: *zeatik, eske, eske, etziten... zen harri koxkorak bezala aik* ‘zergatik eske ez zidaten... ziren harri koxkorak bezala haiek’.

-Harridurazko perpausak, izenordearekin hasten dira, euskal jatorrizko senari segituz: *uuek irristak!* ‘ze erristak’.

1.5. *Lexikoa*

aire ‘kanpora!’, *arbi* ‘nabo’, *banarrak* ‘banabarrak’, *bes* ‘berriz’, *irristak* ‘erristak’, *kalparra* ‘artilea’, *kamio* ‘bidea, errepidea’, *orbela* ‘orbel, ostoa lehorra’, *uloak* ‘oloak’.

II. Beintza-Labaien

Gure elkarrizketatuak 73 urte ditu eta Labaienen bizi da, bertara ezkondu baitzen 22 urte zituela. Gerra ondorengo garaian ezin zen garia errotan eho, eta garai hartako momentu larriez mintzo da. Halaber, etxean argirik ez zen izaten eta horren berri ematen digu; azkenik, kisua eta mendiko kisulabeez mintzo zaigu, herriko mendietan egiten baitzen. Gaztea zela Saldiasen bizi izan zen. Senarrarekin euskaraz aritzen zen, zuketan. Seme-alabekin berriez hiketan. 2003. urtean egindako grabaketa da hau.

Eskola eta gerra

Eskolan ze ikasten ziñuten?

Leitzen ta pixkot eskribitzen.

Etxe guzitatik yoten ziren aurrak?

Dentik, dentik... gero gerra pasatu zen, gerra zen gure gazte denb(e)rin, izandu zen, ta gerreko denbrin obligatua izaten zen yotia yendia... eskolera.

Gerra nola bizittu ziniñuten?

Gerra guk ezkiñun aitz sufrittu, baño batzuk fuertia izandu zuten gerra, illek eta, mutillek eta yonta...

Emen etzen sumatu?

Bai, il ziren Saldisetik iru mutil ta Labaindik zazpi...

Gerran gosia pasatu ziniñuten?

Bai, etzuten utzitzen errotatan ta yeusere ittia, ez artorik, ez garirik, deus etzattiken in, guardik yoten ziren ikustera, bisita iten zuten errota ta ikustera yon. Ta egun batin errotzaña an zatekin guardik sumatu zuztenin ikarikin itxia, yon ta ideki ta errotan eskua sartu bero artan, ta beru berua egoki, ññño, berua zeok au!, erran men zion guardik, ez men zioten deusere in.

Kastigatzen zuten arrapatzen bazuten?

Bai, biño etzion kasorik in... giltza eramin artuta beurek, guardik. Ze mixeri zen, e?

Ordun ze yaten ziniñuten?

Al zena. Gu baño makurreguk baziren, Eratsundik ta ekartzen zen beti ogi pixko bat edo... gero kontrabandun gari pixko bat... ola biltzen zen yendia, naiko lanakin biltzen zen denbra orten. Gu gutxi akordatzen gera gerreko denbraz, gaztik giñen. Makik eta ibiltzen ziren bordatan ta, makik erraten zaie soldaduk eskautuk gerratik. Tiro gorrak baziren mendien...

Etxean argirik gabe

–Itxin nola moldatzen ziniñeten argirik ta gabe?

Argirik ta gabe, antxe, artara kostunbratuk giñen ta ala ibiltzen giñen. Petrolio argia ta izaten zen. Sukaldin su erra in ta sun argiketan eon ta, gero guatzera sittun, ta olaxe.

–Berandu arte an itxin sukaldin denak su ingurun?

Su ingurun eoten giñen pixko bat, batere, luk carrak itten giñuzen ta, gaztiak lo itten baitu, ta guk lo itten giñun aisa. Ta biamana goizin atta ta ama yoten ziren alorrera goizin lanera ta gu lo itten giñun aik torri artio.

Ogia nola egiten zen

Ogia nork itten zun?

Amak itten zun.

Zer ziren taluk?

Ez, ez, ogia labian erre. Labia sututu sutan patu. Labetik gero, berotzen zenin, brasak ta erretzen zirenin, andik ateri, garbittu labia berriz ta ogia sartu...

Itxe guzitan bazen labia?

Bai, bai, len bai. Orain botik ttugu, bai biño obra in giñunin, ordun bazen itxe guzitan labia.

Elkarrizketatzailea: J. L. E.

Elkarrizketatua: J. Z. G.

Nola bizi ginen lehenago¹

–Gu leneo nola bizi giñen?

–Uaingotik benpen difente bizi giñen.

–Leneo...

–Lana azkar in ta ttiki ttikitetik, sei zazpi urteteko alorrera, beien aurrin biltzera, ta gero...

–Gero txera torreta berendurik etzen zaten xokolte, ta gazta bazen kontent.

–Ta ze azinda zaten zintuzten?

–Zaten ginttun beiek.

–Zemetso bei.

–Sei zazpi bei ta aretxek aze.

–Ta gero aiken ze itten ziñuten?

–Aikin, aretxek saldo.

–txereko gelditzen al ziñuten?

–txereko ez, ez, ez, ez, dirua hartzera... diru pixkot bakarra zaten zen txien etzen iltzen ordun ez aretxerik... xerri bat urtien, besteten ardiizar bat, eguarriten bertze ardi zar bat eta salbatore eunin billots bat. Urtien urik zaten ginttun kontatuk iru buru, urik iltzen ginttunek ta olluk era zaten zerenen, saldot.

Zer jaten zuten

–Ollaskok ere azitzen ginttun ordun txitek ta ollaskok ere saldu denek. Zaten zerenek, etxien ezkinttun batere yaten bakarrik taloa ta esnia, taloa ta gazta,

1. Hemendik aurrera egindako elkarrizketa zatiak Beintza- Labaiengo beste hitzun batzuei dagozkie. Behean agertzen diren horiei.

potajia iunero eltzaria gore txien benpen gok iunero urte guzieren eltzaria yaten giñun.

–*Zuk ze yaten ziñuten, potajia, atautxi?*

–Patajia eltzaria jeneralen ta patata salda ez gutti aitz. Eltzaria geinin.

–*Ta gero biarren platera biarren platera.*

–Biarren platera urdai pixko bat tomatekin patata prixittukin iuridin.

–*Ta gero gabin?*

–Gabin zaten zen berendua zaten giñun kanpun zaten bai giñen go kokorto ezker ortxeko amar urtetik gotte beti borden zaten giñun guk bizia kasik goizin yon ta arratsin torri.

Kisua egiten

–*ze, Paoten?*

–Bai, Paoten bazkaria amek eramotten ziun ta attekin antxen go zeatik an zaten ginttun terreno aundik, aundik, benpin geun parajia an zaten giñun. Iru borda zaten ginttun, ardintzet bat bertzia beientzet ta gero bertzia belarrek ta sartzeko. Ola zaten giñun, ooltxe ta kisua ere itten giñun.

–*Ta kisulabia baziñuten zeuna?*

–Kisulabia bagiñun geuna borden aurreko aldien.

–*Ta nola itten ziñuten?*

–Kisua itten giñun, ayuntamenturi eskatzen zion attek arba, mendiko arba azpiko zarrek ola bota ta, arria karri goitik.

–*Ze kartzen ziñuten?*

–Arri beltza.

–*Beltza.*

–Arri beltza kartzen zun Sorogaintik. Kisu aunitz itten giñun guk.

–*Ta nola itten ziñuten arba aiek azpetik, zolotek sartota?*

–Bai zolotek sartota sei do zazpi iun kontinuo sua gaba ta iun.

–*Ta gero arba aien gañetik arri beltza bota.*

–Arri beltza zaten zun... arkuia iña azpetik dena artua labia bezala ola, ta gañen gero pilla, pillatua. Azpetik sua manez erretzen kisua biurtzen zen.

–*Ta azpetik beti arabak sartu, ez?*

–Otiekin ere urte batin in zandu zun e!! otea karre Larrazabaltik e!! gore atta zenek, gore atta zenek majinbat lana in zun!!

–*Ta gañetik tapatzen ziñuten.*

–Gañetik tapatzen zen lurrikin.

–*Ta gero kisua zerteko erabiltzen zen?*

–Kisu ori karro ttiki batzuk zaten zeren.

–*Nola zuten izena? gordia zun denbora aiten izena?*

–Bai eurrezko oitik bai me oitik gañin burni miar tira biño gañekun gurpilek.

–*Ta gero kisu ori ze itten ziñuten, atautxi.*

–Kisu ori guk itten giñun Garaxenen.

–*Zuk etzinten itten kisua.*

–Gok ezkiñun itten Garaxenen, itten zuten guk ezkiñun itten kisurik.

–Kisua itten giñun alorrera atere, arria atetzen zen ore ta ore alorrera bota montonka gordi aakin ta gero euria itten bazun mariitzen zen, mariitzen ta gero ungarria bezala zabaldo palekin artuta.

–Alorrin lurra arrotzen du ungi.

–*Ta ori ze itten zen urtien bein bota.*

–Ez, iru do lau urtetik do, bostetik do, ola itten zun itten giñun guk edo guttiotik igual biño benpen...

–Gore attek aunitz in zun.

–Guk goizin, ni alletua nizen bein biño geioten neskatx inta, gosaria ara, bordera buruen artota ordun, ardi zarra il ta ordun jaten ginttun, afaria ara. Erriek launtzen zion, zaten ginttun boluntariok yoten zirenek.

–*Zun attek bakarra itten zun kisua?*

–Emen gure denb(e)rin guttik itten zuten. Yoantenen ere, gore attek bezala etzuten itten eztaket...

Elkarrizketatua: J. A. U. F. B.

Elkarrizketatzailea: bere biloba

2.1. Fonologia

–Zenbait ingurunetan, *u* bokala ireki eta *o* ahoskatzen da (cf. Apalauza, 2008: 64) Malerrekan eta Basaburuan ohikoa den bezala: *zabaldo* ‘zabaldu’, *zolotek sartuta* ‘zulotik’, *artota* ‘hartuta’, *zemetso* ‘zenbaitzuk’, *kozkorto* ‘kozkortu’, *saldota* ‘salduta’. Pertsona izenordainetan ere gertatzen da: *go* ‘gu’, *gore* ‘gure’.

–Eta *i > e* irekitzeko joera arauzkoa da erdialdeko nafarreraren eremu honetan: *ore* ‘hori’, *torreta* ‘etorrita’, *karre* ‘ekarri’.

–Bokalarteko -d-, -g-, -r- kontsonantea galtzen da: *earrak*, *erra* ‘ederrak’, *aitz* ‘agitx’, *eurrezko* ‘egurrezko’, *uaingotik* ‘oraingotik’, *launtzen* ‘laguntzen’, *sittun* ‘segitian’.

-*ea* > -*ia* diptongoa sortzeko joera dago, eta batzuetan bi bokal berdintzeraino heltzen da: *labia* ‘labea’, *miar* ‘meharra’, *mariitzen* ‘mareatzen’. Eta hasierako -*eo* > *yo*: *egon* > *yon* eta *eu* > *iu*: *iurdin* ‘eguerdian’.

-Izenari + -*a(k)* mugatzailea eransten zaionean, izen horren bukaerako bokala sortzen da, -*iak* > *ik*: asimilazioa, *gaztik* ‘gazteak’.

-*ean* > -*in*: asimilazioa inesibo morfeman: *itxin* ‘etxean’, *sukaldin* ‘sukaldean’, *goizin* ‘goizean’, *sukaldin* ‘sukaldean’, *gañin* ‘gainean’, *aurrin* ‘aurrean’.

-Izena + -*a(k)* mugatzailea, izenei mugatzailea eransten zaionean, izen horren bukaerako bokala sortzen da: -*oak* > -*uak* > -*uk*: *luk* ‘loak’, *taluk* ‘taloak’, *kostunbratuk* ‘akostunbratuak’.

-Gauza bera gertatzen da inesiboarekin: -*oan* > -*uan* > -*un*: *gañekun* ‘gainerakoan’, *sittun* ‘segituan’, orduan > *orden*.

-*T*-ren bustidura *i*-ren ondokoa eta adierazkorra indartsua da: *atta* ‘atera’, *garbittu* ‘garbitu’, *itten* ‘egiten’, *ttugu* ‘ditugu’, *gutti* ‘gutxi’, *prixittu* ‘prejitu’, *gotte* ‘goitire’.

-Bukaerako *a* > *i* bihurtzen da, baina ez da ohikoa, lexema honetan izan ezik: *ateri* ‘atera’.

-Laburdurak eta asimilazioak ugariak dira, hauetan bokal eta kontsonante kenketa ugari izaten dira: *eo* > *o*, *ei* > *i*, *ie* > *i*, *ei* > *i*, *eu* > *iu*: *yoten* ‘joaten’, *sittun* ‘segituan’, *guzitan* ‘guzietan’, *benpen* ‘behinik behin’, *zemetsu* ‘zenbaitu’, *eun* > *iun* ‘egun’.

-Partizipioan -*ta* bukaera erabiltzen da: *egon* > *yon*: *yonta* ‘egonda’.

-Igurzkarri sabaikaria agertzen da hitz batzuetan: *prixittu* ‘prejitu’.

-Sinkopa ez da oso ugaria, baina, erabiltzen da: *dentik* ‘denetatik’, *denbrax* ‘denborax’, *denb(e)rin* ‘denboran’, *eskautu* ‘eskapatu’, *errotzaña* ‘errotzaina’, *ooltxe* ‘holaxe’.

-Kontsonante elkarketei dagokienez, herskari ahostuna ahoskabe egiten da aditzetan, *ez* + *g*- > *k*- taldeetan: *ezkiñun* ‘ez genuen’.

-Asimilazioa ugaria da: *i* eta *u*-ren ondoren, *a* > *e* bihurtzen da: *errie* ‘herria’.

-*o* > *u* ixten da kontsonante sudurkariaren aurretik, baztaneraz gertatzen den bezala: *ungi* ‘ongi’, *ungarria* ‘ongarria’.

-Aferesia, *e*- hasierako bokalen galera ohikoa da hitz luzeetan eta motzetan ere bai: *men* ‘omen’, *do* ‘edo’, *zaten* ‘izaten’, *txera*, *txereko* ‘etxera’.

-Beste batzuetan, hasierako -*e* ixten da txistukariaren aurretik, goi nafarreraren eremu handian bezala: *itxe* ‘etxe’.

-*ld*- taldea eta -*mb*- kontsonante batean bakantzen dira: *billu* ‘bildu’, *zemeit*, *zemetsu* ‘zenbaitu’.

-*tik* ablatibo kasua -*n*-*z* bukatutako izen bereziei eranstea ahostundu egiten da: *Eatsundik* ‘Erasundik’.

–Bokal asimilazioa arauzkoa da, bi silaba jarraian daudenean berdintzera jotzen baitute, honenbestez: e-a > e-e- gertatzen da: *atere* ‘atera’, *zerteko* ‘zertarako’.

–*k-* kontsonante txandakatzen da igurzkari belarearekin. Fenomeno hau Euskal Herriko eremu anitzetan gertatzen da, baita iparraldean ere: *majinbat* ‘makina bat’. (cf. Ibarra, 1995: 252)

2.2. Izen morfologia

–Izenordain intentsibo ugari erabiltzen dira: *beurek* ‘beraiek’, *geun* ‘geuren’, *geuna* ‘geurena’.

–*ketan* morfema, ekintza adierazteko erabiltzen da: *su argiketan egon* ‘su argiketan egon’.

–*Artio* posposizioa dugu goinafarrera eremu handian ohikoa dena: *torri artio* ‘etorri arte’.

–‘Zenbait’ zenbatzaile zehaztugabeak *-tsu* morfema hartzen du: *zemetso* ‘zenbait’.

–*Gure* erakuslea erabiltzen da familiako norbait izendatzeko, *gore aita* erabiltzen da. Bertzaldetik, X... *zena* egitura erabiltzen da hil den norbaitez mintzatzeko: *gore atta zenek majinbat lana in zun!!* ‘gure aita zenak, makina bat lan egin zuen’.

–Nondik kasuan, *-tik* morfema eransten denean *-n-z* bukatutako izenei, herskaria ahoskabe ozena bihurtzen da: *Labaindik* ‘Labaiendik’.

2.3. Aditz morfologia

–*du* partizipio analogikoaren morfema nagusitzen da, erdialdeko eremuan ohikoa denez: *izandu zen* ‘izan zen’.

–Partizipioa osatzeko *-rik*, *-a* eta *-ta* dira aukeratzen diren morfemak: *botik ttugu* ‘botata dugu’, *-ta*: *Neskatx inta* ‘neskatxa eginda’, *eskautuk* ‘eskapatuak’.

–Aspektuaren morfema *-tzen*, partizipioaren morfema gainean jartzen da: *iairtutzen tzenean metak* ‘ihartzen zenean’.

2.4. Sintaxia

–Azalpen perpausetan, nominalizazioa *-t(z)earekin* egiten da: *Errotzaña an izatekin...* ‘errotzaina han izatearekin, han zegoenez’.

-*Bait*- morfema dugu kausazko esaldietan, nafarreraz eremu handian ohi de-
nez: *gaztiak loitten baitu* ‘gazteak lo egiten baitu’, *ta guk lo itten giñun aisa* ‘eta guk
lo egiten genuen aise’.

-Denborazko morfema *-nean* > *-nin* da, erdialdeko eremu zabalean ohi de-
nez: *zirenin* ‘zirenean’, *zenin* ‘zenean’, *ziren giñunin* ‘genuenean’. Zuazoren ara-
bera, Ipar Euskal Herriko hizkeren eta euskara nafarraren ezaugarria da *-laik*, eta
erdigunekoa eta mendebalekoa, berriz, *-nean* (Zuazo, 2003:185).

2.5. *Lexikoa*

Aisa ‘erraz’, *aunitz*, *aitz* ‘asko’, *azkar* ‘fuerte’, *guatzera* ‘ohatzera’, *eltzaria* ‘le-
gumbre’, *majin* ‘makina’, *majin bat lan inzun* ‘makina bat lan egin zuen’, *mariatu*
‘disolbatu, urtu, nahasi’ «disolverse», *eurei itten bazun mariitzen zen*; *sittun* ‘segi-
tuan’, *sututu* ‘sua eman’, *labia sututu* ‘labea sututu’, *patu* ‘paratu’.

III. Lekarotz

*Elkarrizketatu hauek anai-arrebak dira, biak Lekarotzen jaioak. Gizonezkoak 70
urte ditu eta emakumezkoak 62 urte. Herrian bizi dira eta euskaraz egiten dute norma-
lean. Elkarrizketa iloba batek egin die beren etxean.*

Alkate hautetzeak

-Iganden, igendian zituken alkate autetziak, ez? bai... ta gero ea gero non
atra ote ziren ta?

-Nik, lengualdien, periodikuan leitu niñen baño denak ez zituken atra erri
guzietan ta urte berri egunian in barra sineten urtian... ta Lekauzen ta nor atraen?

-Berak segitzen dik Lekauzkoak -aaa, bai- eta Iruitekuak ere bai... Iruite-
kuak ere bai? Oronozkoak izein biar zitien geyenenak zama zela eztikit zenbat
urte -zortzi- zortzi urte naski eta... etzuela nai.

-Baña etzunen atra berrie?

-Ez, eta Elizondokuak ere orrek etzuela nai eta etzuela aibar eta orai berriz...

-Lau edo bortz erri batun etzirena atra.

-Aspilluetan badikik kanbietu dela.

-Bai, leitu nionen baño eztikiñe nor zen.

-Bertzetan eztikiñet nor diren seguruere.

–Almandozen..., bueno ni nik leitu ninen periodikuan zein ziren ta bazitunen batzuk segitzen sineten zarrek ta bertziak berriek ta bertziak lau bortz errietan ez zitunen atra inor ere ta...

–Ta orrengatik gaur inbarra oietan?

–Gaur, ez, bier.

–A bier, bier.

–Bier, urte berri egunian.

–A bai, bai, bai.

–Ta orduen atrako tun denak edo segitukoñe *lo que sea*...

–Be... orai lenago animeleko jaleoak izeten zituken denak alkate inai, orai iñor ta orai iñork ere- iñork ere ez omauk gastatuko... yaus ere, ez omaye ja iten.

–Bueno, baño bueno.

–Ayuntamientuak tik indar guzie.

–Bai, baño ayuntamientuan bañe batua *por lo menos* bai, bai Baztango amabortz errietakua beti junta jeneraletan e... alkatiak bañe boto bat, konzejale bezala.

–Pues ortatxeko, gañerakuan.

Elkarrizketatuak: D. anaia eta arreba.

Elkarrizketatzailea: M. D. O.

3.1. Fonologia

–Beherunzko diptongoak ahoskatzen dira *ea > ia* taldea itxi ondoren (cf. Salaburu & Lakar, 2005: 58): *biar* ‘behar’, *egunian* ‘egunean’, *alkatiak* ‘alkateak’ eta *oa > ua: Iruitekuak, ayuntamientuan* ‘Ayuntamientoan’, *gañerakuan* ‘gainerakoan’.

–Bokal arteko -r- galtzen da, goi nafarreraren ohikoa denez: *Lekauzen* ‘Lekarozten’, *Iruitekoak* ‘Iruritakoak’.

–Sinkopa arauzkoa eta arrunta da baztaneraz: *atra* ‘atera’, *Aspilkuetan* ‘Azpilikueta’.

–Bokal asimilazioa, *i* eta *u*-ren ondoren, *a > e* bihurtzen da, baztaneraz eta goi nafarreraren eremu handian ohi denez: *autetziak* ‘hautatsiak’, *bier* ‘bihar’, *kanbiatu* ‘kanbiatu’, *guzie* ‘guzia’.

–Errotazismoan, -rtz- taldea nagusitzen da goi nafarreraren ohikoa den bezala: *amabortz* ‘hamabost’.

–Sandhi fenomenoak ohikoak dira, bi kontsonante berdinak batean elkar-tzen dira: *inai* ‘egin nahi’.

–Jota soinu belarea ohikoa da erdal maileguetan: *konzejale*, *jaleoak* ‘jaleos’, *junta jeneraletan* eta jatorrizkoa den bertze soinu batean, goinafarreraz ohikoa denez: *ja* ‘deus’.

–*Omen* partikula aditzei elkarzean, holako egiturak sortzen dira: *omauk* ‘omen duk’, *omaye* ‘omen dine’?

–Bi silaba jarriak daudenean eta bokal desberdina dutenean, berdintzera jotzen dute: ‘ezdakit’ *eztikit*, alegia, *Jakin* aditzaren orainaldia forma asimilatua da.

3.2. *Izen morfologia*

Kasu destinatiboan *-xe* indartzailea erabiltzen da: *Ortatxeko* ‘horrexetarako, hortaraxeko’.

3.3. *Aditz morfologia*

–*Izan* aditza + *ari* + *behar* egitura erabiltzen da: *eta etzuela aibar eta orai berriz* ‘eta ez zuela ari behar’.

–*Egin beharra*: baztaneraren ezaugarria da: *in barra sineten urtian* ‘ein behar sineten urtean’, *gaur inbarra oietan?* ‘Gaur egin beharra’.

–Hitanoa erabiltzen dute anai-arreba hauek. Ez da hain ohikoa, baina, haiek horrela mintzatzeko ohitura gorde dute: *estikiñet* ‘ez zekinat’, *badikik* ‘badakit’, *atraun* ‘atera dun’. *Ba* aditz laguntzailearekin lotzean, hasierako *-di* silaba gal-tzen da: *bañe* ‘badiñe’, *segitukoñe* ‘segituko diñe’.

3.4. *Lexikoa*

Ja ‘deus ez’, *yaus* ‘deus’ bi aldaerak erabiltzen dira, *animeleko jaleoak* ‘izugarrizko jaleoak’.

IV. Lekunberri

Lekunberriko gizon euskaldun zaharra. Azken urteetan Lizarran bizi izan zen. Baserriko bizitzaz hitz egingo digu, lan gogorra, dena eskuz egin behar izaten zen eta beti nekatuak egoten ziren. Garai hartan iraztorra bildu behar izaten zen, bertzaldetik, eskolara guti joan zen eta ahal zutenenak bakarrik, gaez. 2008an egin-dako grabaketa.

Eskola

–*Esplikatuko didazu pixkat eskolarena?*

–Eskolan ez giñun ikasi guk kasi. Gabian bakarrik. [...] Eskola gutxi, sei illeete bakarrik, amalau urtean sei illeete bakarrik gabez, gañeakoan ez, txean pixkat erakusten baziun amak edo, bateonbat etortzen bazenio. Baino gañe-rakoan ez. [...]. Iguar atea bear da.

Baserriko bizitza

–*Esplikatuko didazu baserriko bizitza?*

–Aziendak eukitzen giñun beyek, beorak, da geo auntzak ee bai, da txerrik, da olloak mordoxkat. Geo oiei ein bear zie garbitasune, da jana da ure bear dena jarri. Geo, azpia atea e bai ta berri jarri be bai oa bezela, parrille ez dao, ein ezin loirik. Ta geo juan bar giñu kanpoa belar berdea biltze, jana ekartzeko beien-tzako, ta geo euzkie indar aundin jartzen zunen sekatzeko ebakitzea, segakin, guadaña, o talla o... Geo makinak etzen ordun oain bezala eikitzeo, ta maki-naik ez izateakin ba, dena eskuz ein bar izaten ginun. Ta era ortantxe nekatuta beti, beti nekatuta. Geo sekatzene zenean beyekin eo idik, traktoreik ezen ordun, beyek jeneral. Gurdiekin joan da gurdie kargatu, da gurdie mendin. Da gaineoia izan zen luzea, bi makille ola jarrita, erdin pareat zen. Geo kargatzen zenean barra gainetik jarri fuerte fuerte, da arekin etxea. Da bidea txarra askotan da irauli igoal.

Mendiko lanak

–*Eta zenbat kilometro etxetik kanpo?*

–[...]. Geo gainea mendiz asko de. (Kontuz) ibili bear ziñun. Bide txarrak. Jeneral bide txarrak, da gurdia bueltatzen baldin bazen oi bea berriz. Batzutan indarra baldin bazen jendea franko ingurun, bizkarra azpiyan sartu da altxatzen ginun, biño gutxik. Jeneral, zea, berri berritik ardi gurdí, da an berri berriya «nuevo» kargatu bear giñun berriz. Da, beroa iten bazun, bero aundi bazeoan, moskitoak gaiztoak... ozka iten zinttuen. Beiei be ozka gaiztoa eiten ziten [...], gurdiei ez, da beti sufrittuz. Beti sufrittuz, ortantxe ibili gera. Geo, alor... lurrea etorri ta lurrean berriz, gañeko belarrak denak kendu aurreneko aitzurrakin, da landa area pasa, da ortza atzuk, emen. Beiekin pasten zendue, ure pastu, ongarrie bota, ongarrie da «ciemo». Ongarrie bota barra barre, da goldea, laia, layetu.

Goldea ta laia, ta goldea da beientzat, da laie da eskuz jendeana. ontan sartu ta buelta eman. emen baatzak [...], zas ta buelta eman. Ta geo, batzea berriz landu, txei-txeia jarri, da azie erain, da utzi denbo etorri arte. Ta erabat olaxe. Geo garoa, iastorra, «helecho», garoa u ere segazeakin ein bear ziñun dena ta gurdin ekarri. Ure ere [...] goraño ebaki, al den geiena, da bildu sekoea daola, kargatu ta etxea ekarri ta geo meta ein. Meta beittik gora ein.

–*Hori nola egiten zenuten?*

–Hori sardeakin da, sardeakin, etxtarin. Hoi sardeakin hartu ta bota ta gainekoak belarra bezela kargatu gurdin. Kargatu zaal zaal holaxe, ta geo deskargatu gurditik, metan jarri, hola makilan sartu, luzea, in luzeat hola, beira ondo. Fuerte jarri ta metarren bueltan, zaalera eman iruitzen zaizuna, da geo gora ta gora ta gora ta gora ta gora, meetzen, meetzen, meetzen, goirin bukatu. Hoi leenao ez dizut esan.

–*Ez, begira gauza berria. Ta zertarako e...*

–Ori beien azpieko. Beien azpieko, da txerrin azpieko, ta ardin azpieko. Azpin aziendak lo itteko. Guk oatzak eta eukitzen dittugun bezala, oik oi. Da geo gabea mozten zien goizeako, ta goizean busti baldin bazeokin, kaka iten zin da busti izan zun, ue atea. Ue atea. Ue atea montonea, an, gurdin atzean, or, da sekoea jarri. Bai, berria jarri. Eta olaxe. Nekazariko, besteik ez. Gañerakoan ez zegoan, geo ure bar giñun. Batzutan sekatea iten zun, baino general ure izaten giñun aziendantzako ta danantzako mendia aundie te ta, mendi altue do goittik. Ta mendie altue eoteakin ur asko sartzan da errira. Olaxe, bizimodua olaxe ein dugu. Ta oain, oain, oain deus ez. Oain, Mendozangana joaten naiz, geo zaldik eta baauzka, ta pixkat errepaatzea, ta jana jarri, forrajea, agotza *o lo que sea*. Ta geo ure, ez baldin badauki pixkat geitu, bukatu duen ez duen eo.

Zahartzaro tristea

–*Joaten zara... zaldiekin eta... Pablo Mendozaengana, bai. [...] -Eta laguntzera, edo?*

–Bai. Pixkat paatzen dit, eta *siempre viene bien*. Oixe da dena. Guk oain atea diun bizimodue, bai geo berriz gaude. Jeneral enfermoa beti gaitze daukena, andik miñe, ortik miñe, emendik operazioa, andik etzekiat ze, ortik baakik non. Beti zaude enfermerin bijilatue. [...]. Beti ondo kusteko bidean. Da atea littekena paseora ateatzen da, ta ez littekena antxe gelditzen da eun guztin, triste triste da or. Geo *en la silla de ruedas* dabiltze asko, bai asko daude. Da pena ematen dizu. Tristeia, tristeia. Da oain azkeneko bizimodue au alleatu da. Beste gañerakoan, zutako bizimodue oso diferentea da. Jode!, gabe guzia juergan. [...]. Da goizeko seyetan jendea ezin bildu etxea, au non ikusi da!! Libertadea ongi dao,

nik ez e nai esan. Libertadea naiezun jendeak eta, baiño au geiegizkoa bada baita. Bai. Goizeko iruak alde erretiratu ein bear luke jendeak. Da geo lanea jun bear badu goizean, o ezpadu, ezpadu joan bear zortzik alde o jeiki baino. Oain etxe askotan aitzen da, *si, ya le llamau pa que se levante a comer [...], ya le he dicho a la hija [...]* ta holako komentarioak aitzen die.

Elkarrizketatua: J. B.

Elkarrizketatzailea: U. P. M.

4.1. *Fonologia*

–Hurbileko bokal asimilazioa. Azkeneko *a > e* bihurtzen da *i* eta *u* -ren eraginez: *garbitasune* ‘garbitasuna’, *euzkie* ‘eguzkia’, *parrille* ‘parrilla’, *gurdie* ‘gurdia’, *makille* ‘makila’, *ongarrie* ‘ongarria’, *hazie* ‘hazia’, *ure* ‘ura’, *altue* ‘altua’, *bizimodue* ‘bizimodua’, *miñe* ‘mina’, *bijilatue* ‘bijilatua’, *laie* ‘laia’.

–Bokal arteko –b–d–g–r– kontsonanteen galera oso bizia da Imotzen eta Larraunen (cf. Apalauza, 2008b: 70). Gisa honetan, bokal luzeak erraz sortzen dira: *zaal zaal* ‘zabal zabal’, *baauzka* ‘badauzka’, *baakik* ‘badakik’, eta bertzelako pareak: *atea* ‘atera’, *geo* ‘gero’, *kanpoa* ‘kanpora’, *ebakitzea* ‘ebakitzera’, *makinaik* ‘makinarik’, *traktoreik* ‘traktererik’, *etxea* ‘etxera’, *erreparatzea* ‘erreparatzera’, *dao* ‘dago’, *ein* ‘egin’, *daola* ‘dagoela’, *beira* ‘begira’, *eun* ‘egun’, *aitzen* ‘aditzen’, *pixkat* ‘pixka bat’, *azpieko* ‘azpirako’, *eikitzeke* ‘ebakitzeko’, *paatzen* ‘pagatzen’.

–Palatalizazio automatikoa ugaria da erdialdeko hizkeretan bezala, *i*-ren ondoan: *ziñun* ‘zenuen’, *beittik* ‘behetik’, *sufrituz* ‘sufrituz’, *itteko* ‘egiteko’, *dittugun* ‘ditugun’, *littekena* ‘litekeena’, *baiño* ‘baino’.

–Sinkopa badago, nahiz oso ugaria ez den erdialdeko eremu honetan: *pasten* ‘pasatzen’, *olako* ‘horrelako’.

–Aferesia. Hasierako silaba galtzen da goinafarreran ohikoa dena: *txean* ‘etxean’, *ta* ‘eta’, *do* ‘edo’, *kusteko* ‘ikusteko’, *in* ‘egin’.

–b- kontsonante antihiatikoa garatu da *gau* hitzean, *-a* mugatzailea eransterakoan: *gabe* ‘gau’.

–Asimilazioak morfema bukaeran sortzen dira, artikulua asimilatzeke joera ugaria da, kasu inesiboan, *-ian > -in*: *etxatarin* ‘etxeke atarian’, *goirin* ‘goian’, *enfermerin* ‘enfermerian’, *eun guzin* ‘egun guzian’. *-ak* morfema plurala eranstearen ere *-iak > -ik* dugu: *txerrik* ‘txerriak’.

–*Oa* bokal taldea *o*-ra murrizten da: *denbo* ‘denbora’ eta batzuetan monoptongatzen da: *oa > ua > u* eginez: *joan* ‘jun’ gipuzkeraz bezala.

–*ia* morfema bukaeretan, *iya* antihiatikoa sortzen da erdialdeko euskalkietan ohi den bezala: *berri berriya* ‘berri berria’, *azpiyan* ‘azpian’.

4.2. *Izen morfologia*

–Atzizkien artean, *-ana* jabego genitiboa dugu: *jendeana* ‘jendearena’.

–Zehaztugabeko kopuruak, *-ren bat* morfemarekin egiten dira *-onbat* bukaera eginez: *bateonbat* ‘baten bat’.

–Adlatiboan, nora-ren *-ra* morfema eranstea, *-ea* bukaerak ateratzen dira, *ea* eginez: *lurrea* ‘lurrera’, *montonea* ‘montonera’.

–Soziatiboa, hizkera anitzetan gertatzen den bezala, *-kin* morfemarekin egiten da: *segakin* ‘segarekin’.

–Destinatiboan *-tzako* morfema nagusitzen da, euskal hizkera askotan gertatzen den bezala: *danantzako* ‘denentzat’.

–Inesiboan, *-n* morfema eranstea: *goirin* ‘goian’ dugu.

–Euskaraz aditzondoak errepikatu egiten dira indartu nahi direnean Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkeretan, mugagabea edo partitiboan deklinatu ohi dira halako errepikapenak: aitzitik, euskara nafarraren eta ipar Euskal Herriaren ezaugarria da errepikapenetan mugatzailea erabiltzea: *txei-txeia jarri* ‘xee xehea jarri’.

4.3. *Aditz morfologia*

–**Edun* lehen aldia, singularreko 2. pertsonaren adizkian *-iñu* dugu: *ibili behar zinun* / *ziñun*. Eta pluralekoan: *Altxatzen ginun* / *giñun*. *Kargatu behar giñun*.

–*Edun* lehen aldia *-nd-* taldea nagusitzen da 2. pertsonaren adizkietan: *pasten zendue* ‘pasatzen zenuen’.

–Monoptongaketa dago *edun* iraganaldiko adizkietan: *iten zin* ‘egiten zuen’. *Izan zun* ‘izan zuen’.

–*Egon* lehen aldia *-a-* erroa dugu, iraganaldiko adizkietan bezala: *Bero aundi bazeoan*. *Ez zegoan* ‘ez zegoen’.

–*Egin* aditz indargarria erabiltzen da aditz nagusiaren ondoren: *erretiratu ein bear luke jendeak* ‘erretiratu egin beharko luke jendeak’, *hozka iten zinttuen* ‘hozka egiten zizun’.

–*Eduki* aditzaren orainaldian *-i-n* bukatzen dira 3. pertsonaren adizkiak: *Baldin badauki* ‘baldin badauka’.

–Aditzetan bokal arteko *-r-* galtzen da: *Atea diun* ‘atera dugun’, *aitzen die* ‘aditzen dira’.

–*Edun* orain aldia, batzuetan *-e-*dun formak agertzen dira erdialdeko hizkeretan bezala: *dezu* ‘duzu’, *naiezun* ‘nahi duzun’.

**edin* aditza ahaleran nagusitzen da: *atea littekena* ‘atera litekeena’.

4.4. *Lexikoa*

Batzea ‘baratzea’. Onomatopeiak ugariak dira ‘barra-barra’: *Ongarrie bota barra-barre. Sekatea* ‘lehortea’.

Esamoldeak: *andik etzekiat ze, ortik baakik non* ‘handik ez dakit zer, hortik badakik non’.

4.5. *Sintaxia*

Kausazko edo azalpenezko perpausak *-tzearekin* osatzen dira: *ta makinak ez izateakin ba, dena eskuz ein bar izaten ginun*. ‘Eta makinak ez izatearekin, ba, dena eskuz egin behar izaten genuen’; *Ta mendie altue eoteakin ur asko sartzen zen errira* ‘Eta mendia altua egotearekin ur asko sartzen zen herrira’.

Egin-en erabilera indartzailea ohikoa da erdialdeko hizkeretan bezala; aditz nagusia + *egin* +ad. laguntzailea da egitura: *erretiratu ein bear luke jendeak* ‘erretiratu egin behar luke jendeak’.

V. Lesaka

Joxek, 81 urte ditu, Alanberri baserrian jaio eta han bizi izan da. 1921. urtean jaio zen Oiartzunen, baina orain dela 52 urte, 29 urterekin Lesakara joan zen bizitzera. Gerrako garai gogorrez mintzo da, hilketak eta abar. Bere emaztea Lesakan jaioa zen eta hemen bizi izan zen hil arte. Joxek lana Erreterian egin zuen, kontrabandoan ere aritu zen, muga zeharkatuz. Euskara beti erabiltzen du denetarako, etxean, emaztearekin eta seme-alabekin (hiru seme-alaba ditu, euskaldunak denak). Bertzaldetik, lanean, lagunekin... gazteleraz hitzegiten badaki baino nahiko kaxkarra da bere erdal hizkera.

Gerrako kontuak

Arek kontatzen zittun istorik ikaagarrik! Eta bueno, aritzen ziren... ori... gerra artko denborin arrautu zittuzten ori... ee... prisioneruk arrautu zutelikan denak, iru... iru ofizialiko. Eliza batin denak sartu men zuten, prisioneruk, ek irurek.

–*Eliza batin?*

–*Eliza batin sartu men zuten, eta egiñ omen zioten oyuka, ek irurek il barrak!*

–*Iruek il barrak?*

–Ek iruek segidan, porke ziren... gradukin do zirenak, ez? Pues illarazko zutela. Ta denak an! Ta gero aunitz ere bai ondotikan iltzen men zuten ori... ta galdetzen men zuten boluntariuk. Ok denak, denak artuk pues... prisionero, eta...

–*Boluntariuk bertzik iltzeko?*

–Ez, boluntariuk galdetzen men zuten «Bueno!, biar ttugu unenbertze»... ta ok pes, ok batin in omen zuten, pes ori... boluntario ok uste zuten lanarako.

–*karo!*

–ta presentatu, gero ta obekio ikusik izattek, eta gero, ok, (e)ztakit, amar lagun edo faltatu men ziren boluntariuk.

–*Bai*

–Ta gero kusten baitzuten andik... patzen zittuzten zoluk itten. Zanja bat idekitzen pala ta pikotzakin ta. Eta kusten men zuten yende pillota paretan kontra paratua eta kortina batekin tapatuk eta iltzen.

–*Ta gero zulora sartzeko?*

–Ta gero zulun sartzeko. Eta ordun ola arrun izittuk. Ze gero urrengo egunin iourek ilko ote pentsatuko zuten!

–*bertze zulo bat in ta berail il!*

–Beraiek ilko zeuztela, bo bual!, desesperatuk! Izituak, eta gero ya ek il zuztelik sartu an ta tapatu eta ori beldurra... pasatu aunitz.

–*Jesuuus,*

–*Biño, ok apuruk, aunitz!*

–Ta gero kanpun itten me zuten lo Burgosen, Burgosen egondu ziren. Eta kubiartuk len den bazala or nola diuk azpian... arrin gañin orma, orma zuria eta... Burgosen otz aundiya itten du!

–*Bai, Burgosen, bai.*

–orma zuria, eta alosan gañin itten zuten lo youse gabe.

–*Deusere? Ez manta ta ez deusere?*

–Eta or ormatuk! Ta geigo ikatzen omen zien, unek egun batian, ari zirelikan illak intertzen...

–*Bai.*

–Intertzen men zittuzten pes ola, trintxerata... bota pillo at. Bagoika tortzen men ziren illak, bai, orik ere, ya gerratikan.

–*Artzen zittuzten denak ta bagoian sartu.*

–Sakabantzen men zuzten denak bat bertzin ondun ola, ta gero lur pixko bat bota gaintikan, ta gero zanpatu ta berriz gizonak, ta berriz lurra. Eta ankin, ankakin zanpatzen omen zuten eta... eta bat ari zirelikan, batetikan orra, ola orra, ola ateri men zen!

–*jajaja! Ura etzegon illa?*

–Illa illa zen, zanen zen! Biño... unen inpresiuk ta!

–*karo! Izittuk!*

–Ta barrenak denak botatu. Ta gero, bueno, gañera eonen zen alako postura eonen zen, osea... yana edanakin ta olako gauzak, ta gabaz lo pasatu ta dena.

–*ta an bertan ilko ziren aunitz ez?*

–Ori! ilko ziren aunitz. Ta ordun pes au ya ya itxin ill omen zen porke, unek yaten zun guziya etzun erreintzen, dena botzen zun. Eta andre bat etorri zaion, pena matten, eta ori kartzen men zion katillo batin esnia berua. Ta arek uraxe geldittu barrenin, kafesnia. Ta aretxekin salbatu zela erraten zun berak. Eta ordun ori... kapitana, kapitan bat edo alfereza... kapitana... orik alferezak zanen ziren! Abionetakin, gobiernuk Españakuk ekarri zittunak, denak alemanak men ziren. Kadetik, gaztik eta abiona batetikan eroria bat ea bat omen zen... kadete oritik bat illa, abionen barrenian. Ta ofizialik okeri erran ateitzeko. Ateitzeko ura barrentik ori... kusteko. Eta atei men zuten kanpora billatzeko boltsak. Boltsak billatu ta eztakit zemat, erraten zuten... bos edo sei ori onzak urrik, edo urrezkuk edo.

Elkarrizketatua: J. L. I.

Elkarrizketatzailea: L. I. I.

5.1. *Fonologia*

–Sinkopa, Bortzirietako hizkeran oso ohikoa da, bokal desagertzea konsonanteen artean: *intertzen* ‘enterratzen’, *gerra artko* ‘gerra hartako’, *erreintzen* ‘erretenitzen’, *barrentik* ‘barrenetik’, *botzen* ‘botatzen’.

–Honez gain, Bortzerrietan (Sunbillan eta Malerrekako toki batzuetan) silaba postonikoan badaiteke herskari ezpainkariak irristari bilakatzea: *akautu* ‘akabatu’, *eskautu* ‘eskapatu’, *arrantu* ‘harrapatu’, *irauzi* ‘irabazi’ (cf. Zelaieta, 2005: 235).

–Aferesia, hitz hasierako bokala galtzea arauzkoa da nafarreraz eta Bortzirietan bereziki: *men* ‘omen’, *matten* ‘ematen’, *kartzen* ‘ekartzen’, *zakit* ‘ez dakit’, *kusteko* ‘ikusteko’, *zanen* ‘izanen’.

–Bustidura *i*-ren ondoan gertatzen da: *zittun* ‘zituen’, *ttugu* ‘ditugu’ eta *-ten* aditz morfemarekin ere bai: *matten* ‘ematen’, *izatteko* ‘izateko’. Dirudienez, beste partizipioen analogiaz sortu da, alegia, *itten* eta horien analogiaz, *matten* eta *izatten* sortu dira, Bortziri inguru guztian.

–Monoptongaketa, hitz barruan sortzen da, *ea > ia > a* eginez, Baztango eta Malerrekako ezaugarri berezia sortuz: *barra* ‘beharrak’.

–Bokal bukaerako *-a > -i* bihurtzen da, Bortzirietako aldaera da hau eta hitz hauetan gertatzen da: *ateri*, *atei*, *ateitzeko* ‘atera’.

–Disimilazioa arauzkoa da Bortzerrietako hizkeran, Zelaietak esaten duen bezela (2005: 235) $-o+-a >ua$, $-e+-a>-ia$: erregela ezaguna da: $-e + -a$ taldea $-ia$ bihurtuz: *esnia* ‘esnea’, eta $-o + -a > -ua$ taldea ixten da: *berua* ‘beroa’.

–Bokal protetikoa dago, alegia, a - jartzen da hitzaren hasieran: *alosa* ‘losa’.

–Bertzaldetik, $-u + a(k) c > -uk$ erregela dugu, alegia, morfema mugetan asimilazioa sortzen da: *izittuk* ‘izituak’, *urrezkuk* ‘urrezkoak’, *gobiernuk* ‘gobiernuak’, *Españakuk* ‘Españakoak’, *desesperatuk* ‘desesperatuak’, *inpresiuak* ‘inpresioak’, *izittuk* ‘izituak’.

–Izena + $-a(k)$ mugatzaileak sortzen ditu asimilazioak. Horrela, $-e + a(k) > -ik$ dugu morfema mugetan asimilazioa dugularik: *gastik* ‘gazteak’, *ofizialik* ‘ofizialeak’, *urrik* ‘urreak’ eta baita inesiboa eranstea ere: *batin* ‘batean’.

–Bestaldetik, bokal bukaera $-a > -i$ bihurtzen da, Bortziritako aldaera ezagunena: *ateri*, *atei*, *ateitzeko* ‘atera’.

–Inesibo kasuan, $-e + an > -ean > in$ dugu: *bertzin* ‘bertzean’, *arrin* ‘harrin’, *gañin* ‘gainean’, *itxin* ‘etxean’, *barrenin* ‘barrenean’, *batin* ‘batean’.

–Erdal maileguez, $-on$ -ekin bukatzen dira, nafarreraz ohikoa denez, $-on$ maiz gordetzen dute: *abiona* ‘abioia’. Nahiz eta Bortzerrietan $-oi$ nagusitzen den, kasu bakan batzuetan $-on$ bukaera ere badugu.

$-e$ ixten da kontsonante txistukariaren aurrean $-i$ eginez: *itxin* ‘etxean’.

–Errotazismo taldeari dagokionez, $-r$ -ren aldaera da hautatzen dena: *erraten* ‘esaten’, *unenbertze* ‘honenbertze’.

$-u > -o$ irekitzeko joera dago, nafarreraren erdialdeko eremuan ohi denez: *katillo* ‘katilu’, *zolak* ‘zuloak’. Aldi berean, asimilazio joera ere bai, bi silabatan bokalak jarraian daudenean: *zulun* ‘zuloan’.

$-au > -ou$ bilakabidea dugu diptongoan: *youse* ‘deus’, nahiz oso sistematikoa ez den.

–Kontsonante epentetikoa sartzen da: $-i+a > -iya$ eginez: *aundiya* ‘handia’, *guziya* ‘guzia’.

–Sudurkariaren aurretik $o > u$ itxiera dago sudurkari aitzinean, baztaneraz gertatzen den bezala, nahiz oso emankorra ez den, badira kasuak: *unenbertze* ‘honenbertze’.

5.2. Izen morfologia

–Bortziritako ezaugarri ezaguna da hau, $-ik > -ikan$ partitiboan, ablatiboan, motibatiboan eta modu-denborazko perpausetan; denetan ezaugarri honek indar handia du (cf. Zelaieta, 2005: 243): *gaintikan* ‘gainetik’, *gerratikan* ‘gerratik’, *ari zirelikan* ‘ari zirenean’, *batetikan* ‘batetik’.

–Lehen mailako izenordainak «u»-rekin hasten dira: ‘honek’ *unek*, ‘honenbertze’ *unenbertze*.

–Ablatibo bizigabea erabiltzen da, baita forma bizidunekin ere: *kadete oritik* ‘horretatik’.

–Erakusle plural lehen mailakoek, deklinatzean, pluralari dagokion *-k* morfema bere horretan gordetzen dute. Horrela gertatzen da Nafarroako erdialdeko hizkeretan: *okeri* ‘hauei’, *ok* ‘hauek’, *ek* ‘hauek’, *ek irurek* ‘hauek hiruak’.

5.3. *Sintaxia*

–Harridurazko perpausetan zehar galdera itxurakoak agertzen dira maiz. Perpaus buruan galde-hitza izaten da eta aditzak zehargalderen *-(e)n* marka hartzen du: *zer*, *zein*, *nola* eta tankerako galde-hitzez. Bestalde, izenordainekin hasten dira: *hauek*, *honen* eta honen tankerakoak: *Ok apuruk*, *aunitz!* ‘ze apuru, aunitz’, *Biño unen inpresiuk ta!* ‘Baina, ze inpresioak!!’

–Kausazko perpausetan *porke*-rekin hasitako kasu batzuk badira: *porke, unek yaten zun guziya* ‘honek jaten zuelako guzia’.

–Denborazko esaldietan, *-larik* eta horren aldaerak diren *-lik* eta *-larikan* morfemak erabiltzen dira: *il zuztelik* ‘hil zituztelarik’, *arrautu zutelikan* ‘harrapatu zutelarik’.

5.4. *Lexikoa*

alosa ‘losa’, *arrun* ‘arrunt’, *pikotxa* ‘pico’.

VI. Unanu

Ondoren aurkeztuko dugun transkribapena, Pedro Zaro eta Dolores Zaro anai-arreben arteko elkarrizketa da. Pedro Zaro, 1947ko uztailaren lehenean jaio zen Unanun. Elkarrizketan islatzen da nolakoak ziren umeen jolasak herrian, buztinarekin, zareak egiten erreketan eta txori kabiak harrapatzen, naturaren inguruan. Azkenean, herriko momoxorroen festaz mintzo da.

Umeen jolasak, buztina

–Ni akordetzenon muñeka artas, beya ori, aman kuartoartan yooten uan asko, ta gio kutxaartan, urte askos younduen.

–Soñeko alako puntillesko, puntilla zuribetekin da; ta akordetzenez Barbooneko, nik muñeka soñeko polittarreki ata ta Barbooneko Marik autsi eta amak esaten zien: «ire inbiditta zookin, ire inbiditta, estakelakos beraik muñekik, eta nik andik aurrea, nee muñeka nik ez nuen etxetik ata itten. Gio juetik ez yootien, loyeiki, akordetzen yez, nola itten giñuzkien loyeikin?»

–Muñekuek.

–Muñekuek eta zare txikiyek eta platerak eta eta, gio iruzkiten jartzen giñuen sekatzten. Loyeikin, buziñeeiki.

–Buziñeeiki, ta gio arri gorriyaiek, puska-puska ein da, kolore, koloria mateko, koloria, arri gorri betzuk artu puska-puska ein da gio...

–Ta ura tintea bezala.

–Bai sartzen giñuzkien... sartzen giñuzkien, loyesko ta platera txikiyek eta Gio, ee, buziña ezion nunai, e..Gue etxe ingiyune artan zion buztin goxua, osea, orei, e.

–Bai, artzi, artzi, artzibitan de [...?] buziña.

–Bea segun ze tokiten; buziñ ona izatenguen gue etxeurreko, ori, ori, Izeten zan nola, gor, beltza, beltza o gris illuna bezela. Etarrekin itten giñuzkien ta geo koloria eman.

–Buziña ta [...?].

–Ta ura gio iruzkiten sekatzten bea, jarri. Bea ta gio mutikok gu neskatuek [...?] sekuleko flater monton bat ta koxerak in eta alako batien, sekatzten autzi iruzkiten eta iguel goubien ez bildu ta urrengo egunien gu fateako mutiko denak, an, plater denak lertuik.

Zariak egiten erreka ondoan

– *Bai ta jolasten zenuten mutikoak alde batetik eta neskak bestetik?*

– Bai, geyenien bai.

–Nee denporetan beintzet bai. Neskatuek gio zariak eta itten yooten gittun olako plantaatzuk, nola ittuen izena, dena miibetzuk, zumek pezela bea txikittaaok.

– *A ze, zariak ta itteko?*

–Zariak ta itteko, Ansaoneko larreñoartan, oñik ere uste diet yootendiala; aspaldi ezno oartu holako plantetaa.

– *Uoldien kontra yooten dian, u, utsa yootenan, zulo.*

–Or, e, azpieldartan yoten zan ezadura asko, beia, an, itten giñuzkien sonbreruek eta, sonbreruek akordetzenok punten, alako kalmar batekin.

– Lenbixko, redondoa lotu eta gio eiñ.

– *Ori mutikuek ere, o,?*

– Mutikuek, e. Ni.

– Itten giñuzkien trenzat bezela lendaixko, ta geo trenzarri sartzen ginozkooien.

– Ya ez nez akordetzen, beya. Ez, bea an gaztaroa ere, politta izaten dok erri-ten, e.

– Emen beño polittao.

– Neetako bai, neetako bai. Gio iguel, e.

– Egun guzia, egun guzia, karriken.

Txori kabiak

– txoi kafittek, txoi kafiyek, e, kusten giñuzkien ta yooten giñuzkien jakiñik, ta iguel, lau arruntzeki, txoi kafibet, egun-eguneo txoi kafi arri beitzea, ta 'lakoatien, iguel, eskolan giñoila, rekreatan. Ni akordetzenok, rekreatan itten giñoila rekreatan ataa ta askotan ez giñela tan e itten txoi kafiyek ikustia, eta iguel egun betien alakoatien txoi txikiyek ateraik eta gue txoi kafi. Gue txoi kafiak izaten zian, bakoitza bee txoi kafiyek ziyooten zittun zeñek billetzen zuen, arrenak. Ta halakoatien eskolaa tan ta: gue txoi kafiyek zozkik, e, txoittek, aterak.

– Lau txoikume.

– Bai, bai, lau txoikume; txoi kafittekin ibiltzen giñan.

– Baakin nun zeon txoi kafibet, aurten?

– rnmm...

– Gue estarbiko, a.

– Arrosaiten, ikus nien.

– Bai, bai.

– Lengo egunien, Angelek: «baaikik nun zeok txoi kafibet? «eta» jode, estarbiko [...] ta «noiz ikus dok ik pa ori? «Ta Jode»! orrittek t'an, oi, ostuek t'an Zazkittonen, zengatio...

– Lenao banakien, nik...

– Nik ez.

– Nik bai.

– Ostuek t'an zazkittonen an kus non txoi kafibet, an epela, iruzkittek aures aurre jotzen zien. Baaikik an ze toki politta billatu zuen? bea guk e, Ittur, Itturtxiki, Ittur-txiki, ez.

– Ondatz.

– Ez, ez, lenao, itturrori.

– Itturzar.

–Itturzarreko an, arutza, an yooten zan, osto ori, osto zabaleko landariek, nola dia osto zabalaiek, e, urritzek! etan yooten zian sobraai estaliik, eta, urritzek eta gio beste.

– Urritza beño ketto arboletan, lizar, lizarretan yoten ittun. Zaldu, ori, Zabalanekok eta yoten zittun lizar betzuk an, errotaen onduen.

– A bai; pues nik urritzetan e, artu (zizkit..) urritz lodittoiten, ez miiuiten, bea lodittoiten? Yoote nittuen, osea, arbol bezelaik izaten dianak, urritzek beya urritz mii oitati.

– bea, geyo dittun, lizarretan, lizarretan lizarretan bai, klaro, arbol aundiyao izaten ttuk.

– errotako bideartan yooten zittun, Zaldu, Zabalanekok eta faten giñozkiñen ta gio, lizarretaa itzaotzeko ere koopillo asko yooten zan, ankak eta jartzeko ta an mutikok bakarri ez, neskatuek eta guzie. Eta geo zuek arutza fain ziñeerien, presaarreki, fatenzian.

– ze, itteaka?

– itteaka.

Putzuan bainatzea, larrugorritan

– Ori mutikuek?

– Mutikuek, zengatio neskatuek ezin giñoorien fan, zengatio...

– Mutikuek, erebai, billixkorriten, danok.

–Asi es ke, zuek ikesten ziñuen itteekan (atropelladamente) beya neskatuek, ittorekez.

– Itteerekan, «barreres»?

– A, al zan moduen, beya! (barrez). Dena, errota ura nola diok ori dena, botatziar, botai-botatzen dena. Gareti betien, akordetzenok.

– bai ta bazkaldu ta laxter; bazkaldu eta laxterkan, utsea! ta ez dijestio ez ezeiree!

– Keba, gareyaiten, ez, ez. Orei, klaro fain ziñerien uda biziyeen, zengatio bestela an utsek.

– An utsa otza, jode! bai eta ala eta guziekin ala ta guziekin, zengatio utsak itten do korrittu an.

– Dorrobarrek ezon faten, gutxi, lizarretarrak bai, bea dorrobarrik ez.

– Dorrobarrak, lotsa (barrez), pinpiñila kusteko!

– Denak billixkorritan.

–Ba, ezta neskatuat ee. Ni akordetzenez egun batien fan giñela errotaa, Ma-ttein Maria Kruzekin eta «fan bigaittun ya nun bañetzen dian» da alako putzu bet, beya guk lendaixko aldia faten gintzela andi.

– Putzua luzia.

Momoxorroak herrian

– Jo, mamoxarrota, mamoxarrota, ze bildurra! Akordetzen yez ataaten zanien Zaldubein Bixente, Zaldubein Bixenteeiki?

– Ura uen astoao, izan duen ori.

– Astua? Ni akordetzenok Edrooneko Doloreseki eida baten sartu, eta eida-tien, beya kasi bi ordu.

– Baakizu zer dan eida? [galdetzaileari galdetuz]

– Ez.

– txerrien, yooten dian ori, gelat.

– txerritten, e.

– txerritten gela.

– Ori bai, azpitten agotzaeiki. Nik, e, etxezaarrantan akordetzen yez, eida yooten giñuen, eskaleren azpitten. Pues, illuna geña ez argiik ez ezeiree; eta an sartuta ez ikustaati, ta bildurres ataatzeko, eta gio ya pues, ustes, akaatu ziala mamuxarruek eta ataaten; akordetze nok egun betien ataaten, arrapatu nittuen atetten, akulu oundi betekin, bueno! orei iguel ibillen dia eta:

«Baldin eta baldin belaunien ez banon musu maten akuluoneki barratu arte emanbidunet» eta olexen jarri (belauna ezpainetara gerturatuz) eta ni musu ma-ten asi eta, bunba!, muturrekoat belauneeki, beya fuerte, e.

– Astua, astuao izanduuan ori.

– Gio, akordetzen yez ze ze, korruek itten zoozkorien. Mimiñenekua [...?] ta zintek, ori erebei; bueno nik aspaldi ez ttuk...

Elkarrizketatzailea: O. Z.

Elkarrizketatua: P. Z.

VII. Unanu

88 urte grabaketa egin zitzaionena, 1919. urtean jaioa Unanun. Gaztea zenean, hamabost urte edo zituela, Zumarragan egon zen zerbitzari. Senarrarekin ere Unanuko eus-kara erabiltzen du eta baita seme-alabekin ere. Senarra Antonio Mazo da. Elkarrizketan kontatzen ditu nolakoak ziren herriko lanak, idiekin eta nola lan egiten zuten eultzia egiten 'trilladorarekin', makina eta aurrerapen ikaragarria garoa eta garia ehotzeko.

Idiak etxean

–*Tratorik ezan yoin orduben?*

–Ez, ez karruen.

–*Karruen, a karrua zeikin tietzen ziñuerien?*

–Beyeki.

–*Beyeki!*

–Guk beti idettu ttou idiyek, nik eztot ezautu... beyek bai ezaututtut, zortzi bet bei iduitzen giñuzkien beya, hola karrueikin ta ibiltzeko idiyek iduitzen giñuzkien. Zengati gue atta ibiltzen zan basuen lanien, botatzen zittuen oyek... ze izen dakiyue? arbolak ta etten zittuen gio urreneko arreglatzen zittuenien ekartzen zittuen etxa orrekin... Etxa o Etxarria ta Arbizua ta ematen zittuen, e oyek...

–*Trunkubek?*

–Trunkubek.

Trilladora: eultzi lanak

–*Ta gio e... trilladoraikin ta nola aitzen ziñerien?*

–Trilladoraikin? Pues goizien goizter jai ta lendaixko gari... Bai eske, gariyek eske andi etorri eta arrutza trilladora. Batzuk bota eta bestiatzuk olexe ittoik outsien.

–*Ta ze etten ziñuerien lendaixko etxeuena o lendaixko herri guziei laundu ta ta...?*

–Ez, ez ez ori izeten giñen, gu giñoin eztakit zenbat egoin giñen, zazpi o zortzi, ori Jolaneko, Agotzaneko, ez, Agotzaneko etzegon, Jolaneko gio nor zian e... Sandoneko, Barboneko, guk, Danbiliñenekuek e... oyenak ze izen dakiyo? Kuxenekuek, sei zortzi ustiot giñoila, denok juntetuta.

–*Ze etten ziñorien alkarri laundu?*

–Alkarri launduta.

–*Ta lendaixko etxekuek, gio bestekuek...*

–Bai surtia botatzen zan. Zu obeinien... aurten tokatuko zakiyon lendaixko ta elduan urtien tokatuko zakiyon bigerren. Ya filen faten za.

–*Lendaixko urtien suertia ta gio ya...*

–Gio orduben ya... lendaixko urtien botatzen zuen ta beno pues azkena tokatzen zana azkena tokatzia. Askotan obeinien ouritta, ouritta, ta ouritta ta gariyek ola jettoik eta batzuk sartu etxa ta bestiatzuk aleik sartu bai...

Elkarrizketatzailea: B. M. M.

Elkarrizketatua: A. M. L.

7.1. *Fonologia*

–Hitz hasieran **joa* -> *fa* bilakatu da *fan* ‘joan’. *Fanbigaittun* ‘joan behar gaitun’, *faten za* ‘joaten zara’ eta bertze testuinguru bakan batzuetan ere bai: *p*-> *f*: *flater* ‘platera’, eta *kafi* ‘kabi’.

–Asimilazioa gertatzen da goiko bokalen artean: *i-u* > *i-i*: *billixkorritan* ‘biluxgorritan’.

–Bokal harmonia *a* > *e* bihurtzen da *i* eta *u*-ren atzean: *putzu bet* ‘putzu bat’.

– Bertzaldetik, bokal asimilazioa gertatzen da *u* bigarrenkaria denean, horrela: *oa* > *ua* > *ue* joera bizi-bizia da Burundan eta Sakana osoan morfema mugetan: *mutikuek* ‘mutikoak’, *neskatuek* ‘neskatoak’.

–*y* epentetikoa sartzen da morfema mugetan, *-iye*: *gariyek* ‘gariak’, *iyek* ‘idiak’, *beyek* ‘behiak’, *gariyek* ‘gariak’, eta hitz barnean: *zakiyon* ‘zitzaion’.

–*B* bokalartekoa tartekatzen da, Sakanako hizkeraren ezaugarria da hau: *u* + *-a,-e,-o* > *b* tartekatzea: *trunkube* ‘tronkoa’, *orduben* ‘orduan’, *-b-* kontsonantea bokal artean, *-oa* > *-oba*: *Dorrobarrak* ‘Dorrauarrak’.

–Bokal arteko *-d,b,g,r*; kontsonantearen galera ohikoa da: *gio* ‘gero’, *lendaixko* ‘lehendabiziko’, *elduan* ‘heldu den’, *mii oiten* ‘mehe horietan’, *za* ‘zara’, *juetik* ‘jugeteak’, *aleik* ‘alerik’.

–Hitz hasieran *e*-> *i* kontsonantea egiten da bokalarteko kontsonantea galdu ondoren: *eonen* > *ionen* > *yoin* ‘egonen’, *yoten zen* ‘egoten zen’, *yooten giñuen* ‘egoten ginunen’. Bertzaldetik, *beya*, ‘baina’-ren aldaera, kontsonante igurzkariz ahoskatzten da.

–*A* > *e* bihurtzen da *i* eta *u*-ren ondoren: *bigerren* ‘bigarren’, *kafibet* ‘kabi bat’.

–Euskal Herri osoko hizkera askotan bezala, *e* + *a(k)* > *ia(k)* > *ie(k)* > *i(k)* egitea oso joera hedatua da eta testuinguru desberdinetan: *juetik* ‘jugeteak’, hitzaren barruan eta morfema mugetan ere bai: *surtia* ‘suertea’, *bestiatzuk* ‘beste batzuk’, *tokatzia* ‘tokatzea’, eta *e* ixtea *i* bihurtzeraino ere bai: *urtien* ‘urtean’.

–Bustidura automatikoa oso ohikoa da: *ittoik* ‘itorik’, *etten zittuen* ‘egiten zittuen’, *atta* ‘aita’.

–*N*-ren ondoren kontsonante herskari ahoskabea da nagusi, alegia, *-np-* taldea dugu: *denporetan* ‘denboretan’.

–*Elkar* /*alkar* aldaerari dagokionez, *a* –dun aldaera hautatzen da, erdialdeko hizkeretan ohikoa denez: *alkarri* ‘elkarri’.

–Bokal arteko *-d*-ren galera: *elduan* ‘heldu den’, eta *d/b* txandaketa hitz barnean: *lendaixko* ‘lehendabiziko’.

–Diptongo aldaketak: *au* > *ou* diptongoa ixtea gertatzen da: *aundi* > *oundi* ‘handi’.

–Sakanako hizkeraren ezaugarria da, *ai* diptongoa > *ei* bihurtzea: *bei* ‘behi’.

7.2. Aditz morfologia

–Nor-nori orain eta lehen aldian *–aki-* erroa dugu: *tokatuko zakiyon* ‘tokatu zitzaion’, *ze izen dakiyo?* ‘ze izen zaio?’, *ze izen dakiyue?* ‘ze izen zaie?’

–Pluraleko adizkietan *–tza-* erroa dugu: *gintzan* ‘ginan’.

–*en-*z bukaturiko aditzetan geroaldian *–in* egiten dute: *egoïn* ‘egonen’.

–*Edun* pluralean *–tt-* morfema nagusitzen da da, nafarreraz ohikoa denez: *ttut* ‘ditut’.

–Iraganaldian *–a-* erroa da nagusi: *nakin* ‘nekien’.

–Geroaldian *–en* morfema da nagusi: *ezan yoin* ‘ez zen egonen’.

–*Izan* adizkien aditz laburtuak ditugu: *za* ‘zara’.

7.3. Izen morfologia

–Izen morfologia *Nongo* kasua mugatzailerik gabe agertzen da, erronkarieraz ere ohikoa da hau: *Jolaneko* ‘Jolanekoa’, *Agotzaneke* ‘Agotzanekeoa’.

–*rutza* morfema da norabide zuzenezkoa: *arutza* ‘haruntza’.

–Partizipioari dagokiomenez, *–rik* bukaturikoa da erabiltzen dena: *txoi txikittek ateraik* ‘txori txikitoak aterata’.

–Zenbatzaile orokorra izenaren ondoren erabiltzen da: *mutiko denak* ‘mutiko guztiak’, *plater denak* ‘plater guztiak’.

–Soziatibo kasuko morfema *–reki* da, *–n-rik* gabe, ultzameraz bezala: *agotzaeiki* ‘agotzarekin’, *buztineki* ‘buztinekin’. Dena den, aldaera hau ez da sistematikoa: *loyekin* baitugu.

–Adlatibo kasuan, *–ra* eranstean, bokalarteko *–r-* galtzen da: *utsea* ‘urera’.

7.4. Sintaxia

–Kausazko perpausetan, erantzuetan *zengatik*, *zengatio* + adizki hutsa egitura da arruntena: *zengati gue atta ibiltzen zan basuen lanien* ‘gure aita ibiltzen zelako basoan lanean’; *zengatio neskatuek ezin giñoorien fan* ‘neskakoak ezin ginalako joan’.

–*Egin* indartzaila + ad. nagusia, erdialdeko hizkeren ezaugarri ezaguna da. Arauzkoa da Sakana osoan: *utsak itendo korritu han*: ‘Urak egiten du korritu han, ire inbidiya zookin, ire inbidiya ‘Inbidea zurekin izan’, *nik ez nuen etxetik ata itten* ‘nik ez nuen atera egiten’, *eten zakiyon nasi tipula* ‘egiten zion nahasi tipula’.

–‘*zer izena du?*’ egituraren ordezkia da ohikoena; izena + *izan* aditzaren nor nori adizkiekin: *Ze izen dakiyo?*

7.5. *Lexikoa*

autzi ‘utzi’, *bai* ‘bage’, *aleik sartu bai* ‘alerik sartu bage’, *billiskorritan* ‘biluzgorritan’, *dorrobarrak* ‘dorrautarrak’, *Dorrobarrak ez*, *eida* ‘txerritegia’, *estartia* ‘ikuilua’, *ezedura* ‘hezetasuna’, *flater* ‘platera’, *goizter* ‘goizik’, *idettu* ‘eduki’, *idettu ttou idiyyek* ‘eduki ditugu idiak’, *ingiyune* ‘ingurune’, *itteaka*, *itteekan* ‘korrika eta poteka’ ‘atropelladamente’, *ittorekez* ‘no atropelladamente’, *izua* ‘izeba’, *ketto* ‘kieto’, *lendaisko* ‘lehendabiziko’, *obenian* ‘agian’, *ouritta* ‘edukita’, *txoi kafi* ‘txori kabi’, *utsa* ‘ura’, *zarea* ‘zarea, saskia’.

VIII. Zubieta

Berrogeitamezortzi zituen grabaketa egin zitzaionean. Zubietan jaio eta Zuñigan, Arronizen eta Lizarran bizi izan da azken 20 urteetan. Gazte denboran Zubietan ogia egiten zuen eta baserrietan banatzen zuen, gurasoak herrikoak ziren. Kontatzen du nola zigortzen zituzten euskaraz egiteagatik eskolan, «dixosozko» eratzuna jartzen zieten hizketan entzunez gero; oso lekukotza interesgarria da (cf. Gárate, 1976).

Inguruko herrietako festak

–Noiz izaten ziren inguruko herrietako festak?

Ittunan Sanmartiñetan zaten dere festak, Ittunera... Zubitatikan Ittunera daude lau kilometro d’orrela. Eta yuaten giñen urtero, bizikletan yuaten giñen eta ordun estreintzen giñun abrigua, abrigua itten giñun urtian e! Ittungo festetarako estreintzen giñun abrigua eta arata dantzatzera yuaten giñen, biño an ere torri bar giñun illuntzerako itxera, illunezkilli yozkero neskak itxera.

Geio erritara rebai yuaten giñen. Doneztura, Doneztun dere fiestak Sanpedrotan, gero Legasara rebai, Narbartera rebai, Urrozera rebai, dena bizikletan itten giñun. Oittura aundia giñun ondoko erritako fiestetara yuaitea, yuaten tzen gazteria asko, eta Zubitara tortzen tzeren Ittundar mutillak, nola zatentzen kordiona igande atsaldetan, eta dantzatzen zuten gurekin eta erriko mutillak pues askotan etziren atrebitzen neskak atetzia ta atetzen zittuzten ittundarrak, eta gero arratsin bueltan yuaten tzirenin ittundarrak, yuaten tzerela bizikletan, denak bizikletan tortzen tzeren, espetzen tzioten Zubitatik ateri ta belaxe mendixka batin eta matten tzioten arrika Ittungo mutillari, ori, oittura ori izandu da beti an.

Euskaraz egiteagatik zigorra

Eskolan zer egiten zenuten?

Eskolan? Zubitan zeren bi eskola, bat mutikuna ta bestia nixkana, zertik berex yuaten giñen eta an dena euskaraz itten giñun denak eta baserritarrak enpiñen etzakiten esateko erdaraz batere, biño, maestrak, paratzentzun... zagon kastigo bat bezala, euskaraz itten zunak, ba paratzen tzion anillo bat alanbrezkua eta orrek beste batere entzuten tzionin, ba, matten'tzion anillua eta launbetin anilluri zaukinak garbittu bartzun eskola. Orrelaxen, maestrak, eta maisuk ere iñen tzun berdiña. Itten tzuten uri erdaraz ikasteatikan umik, zertik eskola dena erdaraz mattentzen, eta an baserritarrak pues etzakiten erdaraz, ori pues izanttu da gauza bat oso gaizki iñ tzena ordun.

Rekreetan yostatzen giñun, aitzen giñen xingotan, zerela elizatarin arriak eta ari ttiki bat bota eta xingoka, «a la pata coja», orretan aitzen giñen askotan neskak, yustaketa ori zaten giñun rekreetan eta gero ukittuka, ukittuka igual erri guzitikan eta erdarazko... erdarazko... ukittuk bezala're zertik saten giñun «Tres navíos en el mar, otros tres en busca van».

Haurren jolasak

Ori zen ba, eskolan erakutsi zigutena, ori etzen ango oitura, biño eskolan erdaraz nola erakusten tziguten, ba, biltzen giñen orrela, sartzen giñen erriko itxe zar guzitan, solairua dena autsia eotten tzela, anka sartzen tzaigun an beitti askotan, bueno nola giñen gaztiak, pues etzaigun deusere pasatzen biño, olaxe biltzen giñen egunero.

Eta elurra itten tzunin, bueno, yuntatzen giñen mutillak eta neskak eta mutillak ziren zakarraguk... paratzen tzioten elur bola're arria barrenin eta miña geio itteko, olaxen tarrapataka biltzen giñen mutillak eta neskak rekreora atetzen giñenin, eta an elurra ittentzun askotan e!, elur kozkorak ittentzittun... ta, ba! gustora pasatzen giñun.

Zubietako iturria eta gaztandia

Zubitan badao iturria, lenoo arropa garbitzen giñun an denak, neguan itturin or, losa aundi batzuk daude askaken, eta udan errekan garbitzen giñun arropa nola etzen labadorarikan itxean, eta itturri ortan dago ura arrunt ona kolororik gabea, gu yuaten garenin beti artzen dugu ura edateko andikan.

Zubitan gaztainondo asko zeren lenoo, uain asko ondatu dere eta yendik gaztaiña gutxi biltzen du uain, biño lenoo pionak eta dena artzen tzittuzten baserritarrak gaztaiña biltzeko. Gaztaiña ontzen tzenin, ba, soiltzen zittuzten aga aundi batekin, eta gero gaztaiñerin, zaten'tzen txindoki bat, ori da arriekin intako itxi bat, eta ara biltzen tzeren morkotsak, zertikan morkotsan eotten, manteintzen da gaztaiña denbora askuan, eta gero andikan bereisten tzittuzten itxen yateko eta saltzeko, ango yendik diru asko artzen'tzun gaztaiña salduta.

Elkarrizketatua: M. O.

Elkarrizketatzailea: S. A.

8.1. *Fonologia*

–Aferesia, nafarreraren eremu handian arauzkoa denez, hasierako *e-* edo *i-* bokalak desagertzen dira: *biltzen* 'ibiltzen', *zaten* 'izaten'.

–Sinkoparen joera bizkorra da: *estreinatzen* 'estreitzen', eta bestelako laburtzapenak: *Ittunea* 'Iturenena', *Doneztura* 'Doneztebera', *launbetin* 'larunbatean', *manteintzen* 'mantenitzen'.

–Euskal Herriko eremu zabalean, eta nafarrerari dagozkion toki anitzetan dago artikulua asimilatzeko joera, *-e-z* bukatu-rik hitzetan pluralgilea eta inesiboa eranstea; *-eak > -ik* eginez eta *-ean > -in*: *ango yendik* 'hango jendeak', *itturrian* 'iturrian', *arratsin* 'arratsaldean', *launbetin* 'larunbatean'.

–Hasierako *e-* ixten da txistukariaren aurretik *-i > nixka* 'neska' eta *o > u* ere bai hitz bukaeran: *anilluri* 'anillo ori', *anillua* 'eraztuna'.

–Beste batzuetan *i* irekia ahoskatzen da erdialdeko hizkeretan ohi den bezala: *biltzen tzeren* 'biltzen ziren', *dere* 'dira'.

–Kontsonante afrikaria sortzen da azkeneko *-n* + kontsonante txistukaria elkartzean: *artzen tzittuzten* 'hartzen zituzten', *ontzen tzenin* 'ontzen zenean', *biltzen tzeren* 'biltzen ziren', *bereisten tzittuzten* 'bereizten zituzten', *artzen tzun* 'hartzten zuen', *yupaten zen* 'yuatentzen'.

-t, -l eta -n-ren bustidura ohikoa da *i*-ren ondoan: *itturrian* 'iturrian', *Ittunan* 'Iturenena', *nixkana* 'neskana', *mutillak* 'mutilak', *iñ* 'egin', *gaztaiña* 'gaztaina' *matten* 'ematen', *illun* 'ilun', *zittuzten* 'zituzten'.

–Bortzirietan eta Malerrekan *-n* bukaera duten zenbait aditzetan *-iten* tanke-rako aditz izenak osatzen dira eskuarki *-tten* gisara erabakiak: *ematten* 'ematen'.

-Jod-aren ahoskera igurzkaria da: *Yateko* 'jateko', *yendik* 'jendeak'.

8.2. *Izen morfologia*

–Partitiboari kasu inesiboa eransten zaio, *-rikan eginez*, Bortzirietako ezaugarri orokorra da hau: *etzen labadorarikan* ‘ez zen labadorarik’.

–Ablatibo kasuan erdialdeko hizkeretan gertatzen den bezala, kasu inesiboa eransten zaio, *-tikan: erri guzitan* ‘herri guzitik’, *andikan* ‘handik’, *Zubitatikan* ‘Zubietatik’.

–Genitiboan *-(a)na* morfema laburra nagusitzen da: *mutikuna* ‘mutikoena’, *nixkana* ‘neskena’.

–Nora kasu adlatiboan *-rata* morfema agertzen da aditzlagunetan: *arata* ‘hara’.

–*Nori* datibo kasuan *bateri, batere, i > e* forma irekiak nagusitzen dira: *beste batere entzuten tzionin* ‘beste bati entzuten zenion’, *askaken* ‘askarekin’.

–*Ri* atzizkia erabiltzen da *-di*-ren ordeaz: *gazteri* ‘gaztedia’.

–Izenondoa + izena hurrenkera agertzen da jentilizioarekin: *ittundar mutillak* ‘mutil iturendarrak’.

8.3. *Aditz morfologia*

–*Edun* aditzean pluralgilea *-it-* da: *bereisten tzittuzten* ‘bereizten zituzten’.

–Partizipioan *-tako* egitura da nagusi perpaus erlatiboetan: *arriekin intako itxi bat* ‘harriekin egindako itxi bat’.

–*Egon eta eduki* aditzen iraganaldi sintetikoan *-a* morfema dago, goi nafarrean ohikoaenez: *zago* ‘zegoen’, *anilluri zaukinak* ‘zeukanak’.

–*Izan* aditzaren pluraleko 3. pertsona *dere* (dira) da, asimilazioaren ondorioz sortua: *ondatu dere* ‘hondatu dira’.

–Nor nori iraganaldian *tzaigun* ‘zitzaigun’ aldaera dugu, aferesia eta hasierako silaba galdua.

8.4. *Sintaxia*

–Kausazko esaldiak, *zertik, zertikan* hitzekin perpaus hasieran osatzen dira nafarreraren eremu handian ohienez: *zertikan morkotsan eotten manteintzen da gaztaiña denbora askuan* ‘zergatik morkotsan egoten mantentzen da gaztaina denbora askoan’; *zertik saten giñun* ‘zergatik esaten genuen’, *zertik berex yuaten giñen* ‘zergatik bereiz joaten ginen’, *zertik eskola dena erdaraz mattentzen* ‘zergatik eskola dena erdaraz mantentzen’.

–Azalpenezko perpausetan gaztelaniaren eragina agertzen da, Nola-rekin hasita: *nola etzen labadorarikan itxean* ‘ez zenez labadorarik etxean’, *bueno nola giñen gaztiak, pues etzaigun deusere pasatzen* ‘gazteak ginenez, ez zitzaigun ezer pasatzen’.

–Denborazko perpausetan –*nean* morfema –*nin* bihurtzen da: *ontzen tzenin* ‘ontzen zenean’, *Eta elurra itten tzunin* ‘elurra egiten zuenean’.

8.5. *Lexikoa*

Enpiñen ‘behinik behin’, *gaztaiñerin* ‘gaztaintia’, *tarrapataka* ‘lasterka’, *txindoki* ‘harriekin egindako itxi bat’, *xingotan* ‘a pata coja’.

IX. Zilbeti

Emakume hau bizi guzian Zilbetin bizi izan da, Ansorenean. Etxekoekin eta familia-rekin, anaiarekin eta ilobekin euskaraz aritu izan da. Bere familia izan da euskara gorde duen bakarrenetarikoa. 1994. urtean egin zen grabaketa hau. Kontatzen du nola egiten ziren hiletak, norbait hiltzen zenean; barride guztiek parte hartzen zuten eta kutxa herrian bertan egiten zen; ondoren hurbileko herrietara joan behar zen ahaideak gonbidatzera.

Herrian zenbat bizi diren

Emen bakizu yendia joaten da aunitz, ta guti gaude emen, ta zárrak.

–*Zenbat bizi zarete?*

Eztakit Iruñera joaten direleik eta bestetan tola torko dire, berrogeitamar biño geyago eztut uste izein dela, diot e!! eztauzkat goguan, eztut uste izein dela berrogeitamar biño geyago.

Fermin taoyek dire gaztenak, badago Fermin ta bértzeat, ez dugu gazterik bértzeik. Agustín, Juan, guria da Agustín, orai artio ori zen gazténa. Pello ere jua-ten da, dute aurre mutikoat eta ematen dute Billabara ta astia pasten dute an, klaro. Bai, bizi dire emen launbetétan tortzen dire, ta bestétan ta bakazionétan ta oi bai emen bizi dire biño, asterdíen ez, naut erran, asterdien eoten da, ta emen baute etxea. Bai baute... ori emengo kontue izen da ori ertsi zuten eskola ta.

Emen eztago Pellona baizik, emen ezta bertzeik, eskolan dagona ezta emen bizi a... bueno, emen nola zayo oni? Milagros zazuntzeunzu? oyek ere dute iru eskola... joantzen ara ta pisu orretan pasten dute astia igual, enitzen oroitzen emen beño ori iteunte, bueno ta auk ere iten dute...

Klaro, ikasi nai bauzu ta ola... ze aizara emen oyeekin? Noizbait joan bear dire beti ere ta ya kasi kasi... bertzela bertze eskola bat ein, bai léku aunitzetan, ta Mezkiritzen eztakit gelditiko diren, baña. Erosi zuzten pisu batzuk, bat da eméngua, bertzoat ezkondu ze emengo bateki... Iruñekua, denak bizi dire or, erosi zuzten pisu betzuk eta.

Hiletak nola egiten ziren

Nola egiten ziren ileriek?

Eiten ziren oyeek nik kusi tuztenak itxan, iten zuten barrídiak. Bakizu zer den barrídia, ondokoa eta beti tortzen tziren launtzera ta ola, ta gero beti izeten zen norbait emateko kutxa oi ta izeten tziren aur batzuk ta bakotxa bere etxean prestatzen zuten ólak eta ayekin plantátzen zuten kutxa ta géro kartzen zuten Errótik, zerero. Bakizu, Subiza... ta andik kartzen zuzten umendako, ta gero or sartu ta yásta!!

Baina, ori umeentzat egingo zuten!

Dénak, dénak. Nik óri kusi dut étxian e!!

Beti bazegoen zura prestátuik? Bueno, prestatzen zen, izeten zen. Nik eztakit nundik atrako zuten. Ilortzale *es enterrador*. Ta ori prestatzera ta nik eztakit... ta egoten ziren gabas, ilortzale erraten zioten, ilortzaliak ‘enterradores’, bazekiten torri biar tzutela, etxe bakarretik tortzen zen. Bertze etxétik tortzen zen, bertzela agintzen zen ere bai, etxe bakarretik igual etzen yendia ere, balin bazen mutil... oyeek mutilak izeten tziren.

Lenago bazen bertze gauze bat, jua bear tzinuen erriz erri, aidiak oyeek konbidetzen, ta gero bazkarie, nik eztut prestátu. Bákizu gonbidatu gébe, ba ezti-gute gonbidetu ta au ta ure ta... Nik pensatzeunt neretako e!!, emen etzen emen bezala yaten naut erran, ta bakizu nik uste *vaya!!* erratentzen ola ta orai eztakit.

Elkarrizketatua: C. I.

Elkarrizketatzailea: O. I.

9.1. Fonologia

–Errotazismoan –*rtz*- taldea nagusi da Goinafarrera hegoaldean bezala: *bertze* ‘beste’, *erran* ‘esan’.

–Goranzko diptongoak arauzkoak díra; *-oa* > *-ua* bihurtzen da hitz erdian eta morfema muga: *juan* ‘joan’, *emengua* ‘hemengoa’ eta *ea* > *ia* beherunzko diptongoa ere badago: *áidiak* ‘ahaideak’, goi nafarreran ohikoa denez.

–Bokalarteko *-d-* galtzen da aditz nagusia eta laguntzailearen elkarketan: *naut* ‘nahi dut’ eta baita beste ingurune batzuetan ere bai: *bakizu* ‘badakizu’.

–*Jod* fonema hitz hasieran *y-* igurzkariz egiten da: *yuan* ‘joan’; baina batzuetan txandaketa dago *joan* hitzean, belarek ahoskatzen baita.

–Hurbileko bokal asimilazioa, *i* eta *u-*ren ondoan, *a* bihurtzen da *e*, ondoko morfeman ere eragina du: *gonbidatu gebe* ‘gonbidatu gabe’, *bazkarie* ‘bazkaria’, *gauze* ‘gauza’, *konbidetze* ‘gonbidatzen’, *izeten ze* ‘izaten zan’.

–Sinkopa, kontsonanteen arteko bokala desagertzen da: *atrako* ‘aterako’, *torko* ‘etorriko’.

–Palatalizazioa urria da, baita *i-*ren ondoan ere: *mutilak* ‘mutilak’.

–Galdetzaileak, *nun*, *nundik* ‘non, nondik’ dira, *o > u* bihurtu da sudurkariaren aurretik.

–*Au + a* taldean, mugatzailea kontsonante bihurtzen da: *gabas* ‘gauetz’.

–*ufi* txandaketaren ondorioz, ekialde eta goi nafarreraren hizkera anitzetan, *i* hautatzen da, *-tiko* bukaera eginez: *gelditiko diren* ‘geldituko diren’.

–Bokal arteko *-g-*, *-r-* kontsonanteak desagertzen dira: *oi* ‘hori’, *launtzera* ‘laguntzera’, *launbetetan* ‘larunbatetan’.

–*Ez + d-z* hasitakoa kontsonante herskari ahoskabea egiten da: *estakit* ‘ez dakit’.

9.2. Izen morfologia

–Goi nafarreran ohikoa denez, destinatibo morfemak *-dako* eta *-tako* dira: *neretako* ‘niretzat’, *umendako* ‘umeentzat’.

–Soziatibo kasuan *-reki* morfema nagusitzen da, *-n* gabe, goi nafarreran ohikoa denez: *bateki* ‘batekin’.

–Ergatibo pluralean *-ak* morfema agertzen da Zilbetin, nahiz ez den sistematikoa eta *-ek* egiten duten, Erroibarko bertze herrietan: *iten zuten barrídiak* ‘egiten zuten barrideek’. (cf. Ibarra, 2000: 97).

–Posposizioetan, *artaino > artio* aldaera da nagusitzen dena. Bertzaldetik, *orai* aditzondoan *-n* gabeko aldaera nagusitzen da: *orai artio* ‘orain arte’.

9.3. Aditz morfologia

–*-tzen + dut* loturetan *-unt* *-unte* bezalako formak sortzen dira: *pentsatzeunt* ‘pentsatzen dut’, *iteunte* ‘egiten dute’, *Milagros zazuntzeunzu?* ‘ezagutzen duzu?’.

–*Bakar* adberbioa, *bakoitza* ‘ren baliokidea da: *etxe bakarretik* ‘etxe bakoitzetik’.

-z da pluragileko morfema *eduki* aditzean: *tauzkat* ‘dauzkat’, *erosi zuzten pisu batzuk* ‘erosi zituzten’.

-Zenuen > *zinuen* aldaera aditz laguntzaileetan islatzen da, goi nafarreran ohikoa denez.

-*n*-ez bukatutako aditzetan geroaldiko morfema *-en* eransterakoan, bilakabide fonetikoaren ondorioz, *-ain*, *-ein*, *-oin* formak sortzen dira: *izan* +*-en*: *izein* ‘izanen’. Ezaugarri hau goi nafarreraren hegoalde osoan hedatzen da.

9.4. *Sintaxia*

-*Nola duzu izena* egituraren ordean, nor-nori aditz laguntzailearekin egiten da: *nola zayo oni?*

-Denborazko esaldietan *-larik* morfema erabiltzen da, goinafarreraz ohikoa denez: *joaten direleik* ‘joaten direnean’.

9.5. *Lexikoa*

barridiak ‘auzokoak’, *guti* ‘guti’, *ilortzale* ‘herrietan ehortzeko arduraz zutenak’.

X. Zugarramurdi

Bere aita Baatekobordakoa zen, Etxalarko baserri batekoa, eta bere ama berriz, Aramendikobordakoa (Azpilkuetakoa). Lau urte zituelaik Zugarramurdira joan zen bizitzera, eta handik denbora gutira, Urdazubira. Han 22 urte pastu, eta berriz ere Zugarramurdira joan zen bizitzera, eta ordutik hantxe bizi da. 2001. urtean egin zion grabaketa beren iloba batek. Kontatzen du nolako debekua zegoen emakumeentzat dantza egiteko orduan; gisa berean, ezkontzak nola prestatzen ziren familien interesen arabera.

Bestak nola ospatu. Dantzaren debekua emakumeentzat

-*Bestak eta nola izaten tzien zu ttikia, bueno! eta gaztea zinelaik bestak oai bezala izaten tzien -Zuamurdi eta Urdazuin ?*

-Ez... Bai, bai, baino klaro ! o ai aunitz kanbiatua da dena manera besta iteko manera. Orduan jeneralean zen lekuko yendea, eta gero etxeta konbidatuak eta ola tortzen ziren, eta ezpaitzen orduan oai bezala autoik eta izaten, eta orduan

yendea gelditzen zen igual, lau egun besta? pues lau egun besta etxean, eta gure etxean e ala izaten tzen. Etortzen zien kusinak eta yendeak eta antxen pasatzen zuzten egunak, ta ola.

–*Musika izaten tzen egunero oai bezala?*

–Egunero. Atsaldean.

–*Atsaldean eta bai bai, atsetan ere izaten tzen e? atsetan izaten tzen musika.*

–Eta andreak eta gizonak eta denak ateratzen ziren edo?

–*Bueno, oi... ni zautu nuen denbora bat andreak etziren ateratzen e?*

Baino gero pixkat rebelatu bezala in izan bear tzien gazte andana bat, neskak ola, eta gan beardu ta gan beardu ta, gan ta, klaro! dantzan aitzerat plazarat. Nik errateut Urdazubin, orduan Urdazubin ginen. Eta bueno! Ze kritikatzeko manerak eta bueno! Zazi ze erraten izain tzien orduan ekendako, bainon ya ala asi zen orduan atsetako gazteak andre neska gazteak e bai atratzen ta ola orduan asi izaintzen. Eta bueno!

Inauteriak

–*Yauterietan berriz mutikoak bakarrik ez?*

–Mutikoak bakarrik.

–*Baserrietan iten tzen edo errian e bai yauterietan.*

–Baserriak kurritzen zuzten etxeak etxez-etxe eta eskatzen zuten xingarra ta arroltze edo dirua maten zitzaieten, eta gero izaten tzuten bazkaria an ostatu batean eta bazkaria ondoan plazan atera ta dantzan aitzera. Akordeonista bat izaten tzen, eta arekin antxen dantzan.

–*Gizongaiak nun ezautzen tzien orduan?*

–Antxen plazan dantzan. Orduan bazen kostunbrea, usaia, neskak pilan egoten ginen andana bat olaxen, ta mutikoak etortzen zien olaxe ta aiza dantzan? ta guk gogokoa edo gustokoa balima ginuen, bai gaten ginen dantzan aitzera. Eta igual ezpalima zitzaikun gustatzen, ezetz. Ta erraten ezetz e? ! Kalabaza. Eta olaxen.

–*Zenbait neska gaten tziren Frantzirat lanerat eta aunitz an esposatu ziren.*

–Bai, aunitz, bai, bai. Eta denbora ura ola izan tzen, Frantzira lemiziko gaten tzen yendea, neskak igual deus paperik eta pitxik gabe eta gero bai imigraziona man tzutelarik orduan iten tzien paperak ta ola ta orduan ya obeki. Eta mutikoak gaten tzien oian eta edo Ameriketa.

–*Gizongai bat izatenal tzen edo geio? Etzaitut erran nai biak batean e! baino batekin akituta bertze batekin asten al tzen?*

–Bai, bai.

–*Eta etzuten neskek fama txarra izaten orduan?*

–Eztakit ! Eztait iduritzen ola fama txarra. Baino bai, bai gertatzen tzen, bai gizongai batekin akitu ta bertze batekin, bai, bai...

Ezkontzak nola egiten ziren

–*Aitak kontatzen du zenbait yendek «celestino» gisa iten tzutela, zerbaiten kontra, zerri baten truk edo zerbaiten truke gizon bati andregaia atxeman edo. Zuk ezautu izan duzu oi?*

–Nik zautu izan dut gizon batez oi erraten tzen, gizon batendako. Guk zautu ginuen ongi aski gizon ura. Batean, eztakit zenbat ardi, edo zerri bat, edo aren aldera, trukean, edo andregaia bilatzen ziola mutiko bati edo gizongaia neska bati. Oi erraten tzen gizon arendako. Eta gero... emen etzen ainbertze, baino bazien erraten tzuten baziela lekuak igual gurasoak edo familiak ikusten tzutenak ba! bea, alako neska ongi da etxe artako edo alako mutiko alako etxeko ongi da, ta ola ikusten tzela, ta oi erraten tzuten, nik eztakit.

Gero bazen bertze gauz bat, emen leku autan ez ainbertze bainon balima zinen propiedadean etxean edo ezbalima zinen diferentzi oi re bai. Balima zinen propiedadean entsaiatzen tzien edo, ba! edo automatikamente igual gaki zen alde arta bertze propietario batekin edo neska edo mutikoa. Ta ezpalimazinen ala, iduri zuen pixkat ola etzela... (maxter tzienak) Oixe maxter ta ez maxter ta olako gauz batzuk bazien. Oai eztie ola ikusten gauz oik baino...

Elkarrizketatua: K. A. G.

Elkarrizketatzailea: E. A.

10.1. Fonologia

–Aferesia, hasierako *e-* bokala galtzen da. Joera hau arrunta da nafarreraz: *zautu* ‘ezagutu’, *man* ‘eman’.

–Bokalarteko kontsonanteak galtzen dira: *pixkat* ‘pixka bat’, *arta* ‘hartara’, *tzien* ‘ziren’.

–Erdal *-on-^{ez}* bukaturiko formak horrela gordetzen dira: *immigraziona* ‘inmigración’.

–*nb-*taldea *m* bihurtzen da: *balima* ‘baldin ba’.

–Bustidurarik gabeko formak ohikoak dira, baztaneraz eta baxenafarreraz ohi den bezala: *bainon* ‘baina’, *ginuen* ‘genuen’, *zinen* ‘zinan’.

–*Joan* > *gan* aldaera ohikoa da Baztanen, Bortzirin eta eremu honetan: ‘joan’ *gaten tzen yendea*.

–Errotazismo taldeari dagokionez, *-rtz-* taldea nagusi da: *ainbertze* ‘hainbertze’, *bertze* ‘bertze’, *erraten* ‘erraten’.

–A organikoa galtzen da, erdialdeko hizkeretan ere joera hau ohikoa da: *gauz oik* ‘gauza’, *diferentzi* ‘diferentzia’.

10.2. *Izen morfologia*

–*a* organikorik ez da erabiltzen, erdialdeko hizkera anitzetan gertatzen den bezala: *bertze gauz bat* ‘beste gauza bat’, *diferentzi* ‘diferentzia’.

–Izenordain pluraleko 3. pertsonaren morfema *ekek* da: *ekendako* ‘hauendako’.

–Adlatibo kasuan *-rat* morfema dugu ekialdeko hizkeretan ohi den bezala: *aitzerat plazarat* ‘aditzera plazara’.

–Destinatibo kasuan *-dako* da morfema, nafarreraz eremu handian ohi denez: *gizon batendako* ‘gizon batentzat’, *ekendako* ‘hauendako’.

–*ko* morfema erabiltzen da izenlagun eta aditzlagun funtzioak egiteko. Erabilera hau ohikoa da nafarreraz ere: *alako neska ongi da etxe artako edo alako mutiko alako etxe ongi da* ‘halako neska ongi da etxe hartarako edo halako mutiko halako etxerako ongi da’.

–*Aski* aditzondoa erabiltzen da: *ongi aski* ‘nahiko ongi’ nafarreraz ohikoa denez.

10.3. *Aditz morfologia*

–*ki* aditz-atzizkia, Bortiziri inguruan ohikoa dena, lehen aldiari erabiltzen da aditz sintetikoeekin: *gaki zen* ‘joan zen’, *igual gaki zen alde arta* ‘igual joan zen alde hartara’.

–Nor-nori iraganaldian *-k-* rekin egiten da *-gu-* nori denean: *expalima zitzaikun* ‘ez baldin ba zitzaigun’, eta haiei denean *-ote-* morfema jartzen da goinafarreran ohikoa den bezala: *maten zitzaioten* ‘ematen zitzaien’.

–Ahaleran *-ten ahal* egitura erabiltzen da, nafarrerari dagozkion toki anitzetan bezala: *gizongai bat izatenal tzen* ‘gizongaia izan ahal zen’.

10.4. *Sintaxia*

–Harridurazko perpausak *zazi ze!* esaldiarekin hasiak arruntak dira. Erroibarko Mezkitritzen eta goi nafarreraz ere ohikoak dira: *zazi ze erraten izain tzien*: ‘zoaz ze, auskalo zer’ (cf. Ibarra, 2000b: 207).

–Prolatibo kasuan *-endako* morfema instrumentala erabiltzen da: *Oi erraten tzen gizon arendako* ‘hori erraten zen gizon hartaz’.

-ten ahal forma goi nafarreraren hegoaldean bezala: *batekin akituta bertze batekin asten al tzen?* ‘batekin bukatuta, bertze batekin hasi ahal zen’.

–Denborazko esaldietan *-larik* morfema erabiltzen da: *imigraziona man tzutelaik* ‘emigrazioa eman zutenean’.

10.5. Lexikoa

Akitu ‘bukatu’, *andana* ‘pila bat’, *neskak pilan egoten ginen andana*, *gizongaia* ‘senargaia’, *kusina* ‘lehengusina’ fr. «cousin», *kurritu* ‘korritu’, *pitxik gabe* ‘deus gabe’, *usaia* ‘usadioa’, *xingarra* ‘urdaia, txingarra’.

XI. Bibliografia

- Apalauza, A. (2008a): *Imozko euskararen azterketa dialektologikoa*, Iruña, Nafarroako Gobernua, Euskarabidea.
- Apalauza, A. (2008b): «Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu», *FLV*, 40, 63-103.
- Apalauza, A. eta M. Lakar (2005): *Malerreka solasean, ahozko tradizioaren bilduma*, Iruña, Nafarroako Gobernua.
- Artola, K. (1992): «Hegoaldeko goinafarreraren azentua delata (Hurbiltze saiakera)», *FLV* 60, 187-227.
- Camino, I. (1997): *Nafarroako Hizkerak, Euskal Dialektologiak Jardunaldietako Agiriak*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Camino, I. (2003): *Hego-Nafarrera*, Nafarroako Gobernua.
- Camino, I. (2000): «Abiaburu bat Donostiako euskara aztertzeke», in *Dialektologia Gaiak*, 53-85.
- Echaide, A. M. (1989): *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- Epelde, I. (2003): «Larresoroko Euskara» [argitaragabeko tesia].
- Erdozia, J. L. (2004): *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, Iruña, Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia.
- Gaminde, I. (1995): «Nor-en ahalezko oraina eta *Joan*, *Ibili* eta *Egon* aditzen alokutiboak (Nafarroan)», *FLV*, 46, 215-265.
- Gaminde, I. (1986): «Esteribarreko aditzak», *FLV*, 48, 183-205.
- Gárate Arriola J. (1976): «Anillo escolar en la proscripción del euskera», *FLV*, 8, 24, 367-382.

- Haddican, Willian (2005): «Standardization, functional shift and language change in Basque», *Estudios de sociolingüística: Linguas, sociedades e culturas*, 6, n^o1, 87-112.
- Ibarra, O. (1995): *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Iruña, Nafarroako Gobernu.
- Ibarra, O. (1997): «Euskararen eraginaren aztarnak Erroibarko gaurko hizketan», In *Oihenart*, 15, 61-122.
- Ibarra, O. (2000a): «Xuarben aurkituriko testuak (II)», *Huarte de San Juan* 5, 83-97.
- Ibarra, O. (2000b): *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Iruña, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Ibarra, O. (2006): *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia* (Mendaur bilduma, 4), Iruña, Euskaltzaindia, Nafarroako Gobernu.
- Iñigo, P. (2007): «Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan», *Euskera*, 1, 52 (2. aldia), 291-318.
- Lujanbio, O. (2012): «Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran», *Uztaro*, 80, 77-97.
- Mitxelena, K. (1964): *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia, Auñamendi.
- Mitxelena, K. (1976a): «Acentuación altonavarra», *FLV*, 23, 147-162.
- Montoya, Estibaliz (2004): *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*, Iruña, Nafarroako Gobernu.
- Salaburu P. (1986): «Baztango euskalkiaz. Elizondoko doktrina bat», *ASJU*, XX-3, 817-844.
- Salaburu, P. eta M. Lakar (2005): *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*, Iruña, Nafarroako Gobernu eta Euskaltzaindia
- Saragueta, P. (1979a): «Trinidad Urtasun, Bertsolaria (1894-1978)», *FLV* 32, 333-338.
- Saragueta, P. (1979b): «Nere oroimenak», *FLV*, 31, 171-175.
- Saragueta, P. (1981): «Mezkiritz (Erroibar)», *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, n^o 3, 536, Pamplona, Príncipe de Viana.
- Zelaieta, E. (2005): «Bortzerrietako Euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan berrera», *Fontes Linguae Vasconum* 36, 96 zenb. 223-248, eta 37, 99. zenb., 287-306.
- Zelaieta, E. (2009): *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Iruña, Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (1997): «Oiartzungo hizkeraren kokagunea», *FLV*, 76, 29. urtea, 397-424.
- Zuazo, K. (2001): *Sakanako euskara. Burundako hizkera* (Mendaur bilduma, VIII), Iruña, Nafarroako Gobernu, Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (1998): «Euskalkiak, gaur», *FLV*, 30, 191-233.
- Zuazo, K. (2000): *Dialekologia gaiak*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zuazo, K. (2003): *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Donostia, Elkar.
- Zuazo, K. (2010a): *Sakanako euskara. Burundako hizkera* (Mendaur bilduma, VIII), Iruña, Nafarroako Gobernu, Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (2010b): *El euskera y sus dialectos*, Iruña, Alberdania.
- Zuazo, K. (2014): *Euskalkiak*, Donostia, Elkar.